

ANTONIO ZAVALA



AFRIKA'KO GERRA


(1859 - 1860)

AFRIKA'KO GERRA
(1859-1860)

COLECCION AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa
(Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA



4 ABR. 1978

AFRIKA'KO GERRA

(1859-1860)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1977

AZALEAN:

Garai artako **grabado** baten kopia.

Grabado orrek, goi eta bean, adierazpen auek ditu:

EPISODIOS DE LA GUERRA DE AFRICA, 23

C. Mugica dib.° y lit.° — Lit. de J. Donon.

BATALLA DEL 23 DE MARZO DE 1860

LOS TERCIOS VASCONGADOS Y CAZADORES DE TARIFA
atacan las posesiones de los marroquíes y lo-
gran un triunfo completo.

C. MORO editor

5, 7, 9 Puerta del Sol, Madrid — Es propiedad

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)

Inprimatzaille: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)

Depósito Legal: S. S. 256/77

I. S. B. N. 84-7158-032-2

Abril - 1977

A R K I B I D E A

Itzaurrea	9
Afrika'ko gerra, euskaldunak ara baiño leen	11
Cerra-prestaketak Euskalerrian	20
Fueroak	27
Recuerdo de la Guerra de Africa	38
Bertso berriak Zubiria'k jarriak. Biba gure España ta español guztiak	41
Aita arren semeai. A los Tercios Vascongados	45
Gipuztarren alabantzarako itz neurtuak ...	50
Himno guerrero de los Tercios Vascongados.	56
Bertso berriak Etxaniz'ek jarriak	64
Euskaldun mutillen biyotzak	72
Marruekos'ko gerrakuak	81
“Biba español eta O'Donnell'en tropa...” ...	84
“Morerira jua da...”	90
Afrika	101
Bertso berriak. “Pasaia'tik irten giñan...” ...	119
Moruen konbenioko bertso berriak. Gual- dras'ko batallari Pantxillonek jarriak ...	125
Español denen onran Afrika'ko Gerragatik itz neurtuak	131
Bertso berriak. “Marruekotan zer pasatzen dan...”	138
Terziyuen etorrera	147
Himno y zortzico	156

ITZAURREA

Afrika'ko gerra entzun eta orain ia irurogei urtekoa bururatuko zaie askori; alegia, Franco-eta ibili ziran gerra. Baiñan ez da orri buruz bertso-bilduma au.

Leenago ere beste bat izan zan moro ta españitarren artean; 1859.X.22'an asi eta 1860.-III.25'an bukatu zana.

Gerra ori oso atzenduta dago gaur; ez du iñork aitatu ere egiten. Ta guk ere olaxe daukagu. Karlisten eta liberalen lenengo eta bigarren gerra tartean galdua bezela dago, gure kondairaren une gogoangarri bat izanik ere.

Baiñan bere denboran ots aundia atera zuan gerra orrek. Bai gure artean ere. Ari buruz gure aurrekoak atera eta orain bildu al izan ditugun bertsoak, onoko liburu au osatzeko aiaña izan dira beintzat.

Bertso batzuek, garai artako bertsolariak jarririk dira; baiñan beste batzuek gizon eskoladunak paratu zituzten. Beraz, auek ere erri-literaturaren bidetik abiatu ziran; bertso berrien bidea artu zuten. Ori, gure iritzirako, aitorpen aundia da; gure bertsolaritzaren indarra eta itzalaren aitorpena.

Bertso-sail batzuek, erdiak-edo, egille ez-
ezagunarenak dira. Baiñan besteak aita nor du-
ten badakigu: bertsolariak jarritakoetan, Alzo'-
ko Imaz, Zubiria, Elgoibar'ko Etxaniz, Duran-
go'ko Pantxillon; ta gizon eskolatuak egindako-
etan: Aita Uriarte, Eusebio Maria Azkue, Iba-
zeta...

Bertso auek ondo ulertuko baziran, gerra
artako berri ikasi bearra zegoan. Ta ez Marrue-
kos eta Españiaren arteko politikaren eta gerra-
ko gertakarien berri bakarrik; baita ere urrutiko
pasadizu aiek gure artera zer ondorio ekarri zu-
ten.

Orregatik, oiek danak ikasten saiatu gera le-
nengo, kondaira-liburuetan, garai artako perio-
dikoetan eta al genduan toki guzietan aztertuaz.
Ta, urrena, zenbait atal berezitan eta bertsoen
aurretik ere bai, ikasitakoak al bezin argien ida-
tzi ditugu, irakurlea bertso guzien esan-naiaz ne-
kerik gabe jabetu dedin.

Afrika'ko gerra onetzaz egin deguna, txan-
daka, Euskalerrriak parte artu duan gerra guzie-
taz egin-asmoak ditugu: frantzestea, karlisten
eta liberalen artekoak, Cuba'koa, Afrika'ko bi-
garrena, 1914'ekoa, eta abar.

Orretarako denbora bear da, ordea, eta urte
batzuek joango dira langintza orretan. Baiñan,
ori egindakoan, argi berri bat izango degu, ber-
tsolariak gure erriarentzat zer izan diran ikuste-
ko.

AFRIKA'KO GERRA, EUSKALDUNAK ARA BAIÑO LEEN

Aspalditik ari zan giroa berotzen eta sumintzen; baiñan azkenean, sarritan gertatu oi danez, txinparta txiki bat izan zan sua piztu zuana; alegia, moroak eta españitarrak gerrara eraman zituana.

Gerra artako gertaerarik nabarmenenak egunik egun emango ditugu orain atal ontan; baiñan, izenburuan esan bezela, emengo mutillak ara iritxi ziran arte.

1859.VIII.1-9: Moroak gero ta ausartagoak ziralata, Zeuta'ko españitar gobernadoreak, bere mendeko erri ori obeto zaintzearren, arresitik kanpora guardi-leku berri bat egitea agintzen du; murallatik kanpora, alegia.

1859.VIII.10: Moroak, gauzez etorri eta asitako lanak desegiten dituzte. Anyera kabilako moroak, españitarrak beren Zeuta'ko barrutia zabaltzen ari ziralata, protesta egiten dute.

1859.VIII.23: Moroak etorri eta mugarriak ateratzen dituzte. Aurrera segi eta españita-

rren etxe moduko batzuek erre. Gero, España'ko armarría lurrera bota, eta ankapean eta abar oso era itxusian erabiltzen dute.

Españitarrak ere etzeuden errurik gabe: moroen lurretan sartu eta egurretan ari izanak ziran. Mugarri guziak ere ez omen zituzten bear zan tokian sartuak.

1859.IX.5: Tanjer'ko españitar konsulak eskutitz bat bialtzen dio Marruekotako atzerriako ministroari, moroak España'ri egindako iraiñagatik protesta egiñez eta onoko baldintza auek eskatuaz: España'ko armarría len zegoan tokian ospetsuki jartzea; errudunak Zeuta'ko soldaduta bizi-lagunen aurrean zigortzea; españitarrak, beraiei zerizkien tokietan, gaztelu edo *fuerteak* egiteko eskubidea onartua izatea; berriz orrelako iraiñik iñork egin etzezan, bear ziran neurriak artzea. Ta ori dana, amar eguneko epean.

1859.IX.7: Dalako ministro orren erantzuna: eskatutako guziak beteko zirala, bat izan ezik: gazteluak nunai egiteko eskubidea onartzea; ortaz erregek berak erabaki bear zuala eta il-zorian zala.

Ta, denbora berean, keja batzuek ere azaltzen zituan: Zeuta'ko gobernadoreak, errudunak kastigatu zai egon bearrean, soldaduak artu, erritik kanpora erten eta

inguru artako moroak amorrastzen zituala; bandera altxa zuan batean, onoko desapio au ere egin ziela moroai: berriz bandera botatzen bazuten, urrengoan beren buruetan sartu ta altxako zuala; len olakorik etzala, eta artu-emanak ainbesteraño garrastu baziran, Zeuta'ko gobernadoreak zituala erru guziak.

1859.IX.9: Marruekotako errege, Aab-el-rrajman, il; beraren seme bat, Sidi-Mohamed, errege berria.

Bitartean, Zeuta'ko soldaduak eta inguruko moroak ikamikaka jardunak ziran alkarrekin: moroak españitarren lanak berriro desegin nai eta besteak eraso ta uxatu.

1859.X.3: España'ko gobernuak baldintza estuagoak eskatzen ditu.

1859.X.22: Artu-emanetan ez dira konpontzen, eta España'ko gobernuak gerra egitea erabakitzen du.

Kondaira-idazle askok diotenez, ortaraño gabe ere gauzak konpondu zitezkean. Baiñan España'ko gobernuaren buru egiten zuanak, Leopoldo D'Donnell jeneralak, ala nai izan omen zuan, politika-alderdiak zerabilkiten naspilla baretu eta españitarrak abertzaletasunez berotu ta batu zitezzen.

Bestalde, gaur ere bai baiñan garai artan askoz areago, aberriaren onorea ta izen ona gauza sakratuak ziran. Frantzia'k ere, bere konsula abaniko batez jo zutelako, Arjelia'ri gerra egin zion eta artaz jabetu. Ta Ingalterra'k, bazterretik suari aize emanaz, España'k batere indarrrik etzuala esana omen zion Marruekotako erregeri. Dana dala, gerra etorri zan eta España guzian barrena abertzale aizeak gogor jo zuan. Jende guziak gogoberotu ziran, eta ez iñor baiño gutxiago euskaldunak, gero bertsoetan ikusiko degunez.

1859.XI.3: O'Donnell jenerala, Afrika'ra joango diran soldadu guzien buru izendatzen da. Leopoldo O'Donnell (1809-1867), Irlanda'tik España'ra aldatutako famili bateko semea zan. Liberaletakoa izanik, karlisten kontra jardun zan gerratean, Andoañ'en-eta. Afrika'ko gerra asi zanean, *Presidente del consejo de ministros* eta *ministro de la guerra* zan.

España'n, lau soldadu-talde antolatzen asten dira: lenengoa, Etxague jenerala buru, Algeciras'en; bigarrena, Juan Zabala jenerala buru, Cádiz'en; irugarrena, Antonio Ros de Olano jenerala buru, Málaga'n; laugarrena —talde oni *División de Reserva* ere esaten zioten—, Juan Prim jenerala buru, Antequera'n. Gerra-

itxasontziak, berriz, Díaz de Herrera'ren agindupean.

Etxague ori, —Rafael Echagüe y Birmingham—, donostiarra zan. Txapelgorrietan karlisten kontra ibilia; Afrika'koa asi zanean, *mariscal de campo* zan. Gerra artan eskua zauritu zioten. Madrid'en il zan, 1887.XI.23'an. Gorputza Donosti'ra ekarri zuten, ta bertako Errikotxeak, egun berean, kale bati beraren izena ematea erabaki zuan.

Juan Zabala ori, berriz, Lima'n jaioa zan. O'Donnell'ek, Tetuan eta Tanjer artu-asmoak egin zituan. Orretarako onena, soldaduak Tetuan'go ondartzan legorreatu eta andik erasotzea zan. Baiñan itxas-gizonak, ori ezin zitekeala esan omen zioten. Orduan indar guziak Zeuta'ra eraman eta andik atakea jotzea erabaki zuan. Baiñan gerra asko luzatu zan orrela, eta, gero ikusi zanez, alperrik; Tetuan'go ondartzan nai zan guzia egitea libre baitzegoan.

1859.XI.18: Lenengo soldadu-taldea Algeciras'tik Zeuta'ra igaro.

Urrengo egunetan, soldaduak zenbait gaztelu edo *fuerte* egiten asi. Moroak galaraztera etorri eta burruka.

Gerra artan, aundi edo txiki, ia egunero burrukarik bazan. Orregatik, aunditxo-enak bakarrik aitatuko ditugu.

1859.XI.21: Españitarrentzat etsai berri bat azaldu: kolera. Gaitz kutsakor onek, moroen armak baiño soldadu geiago eram omen zituan.

1859.XI.27: Bigarren eta laugarren soldadu-taldeak Zeuta'ra iritxi.

1859.XII.9: Moroak atake gogorra jo. Españitarrak, tiroka, baionetaz eta abar, bere-nari eutsi. Burruka moroen kalterako izan zan eta *Batalla de Sierra Bullones* esaten zaio liburutetan.

1859.XII.12: Irugarren soldadu-taldea Zeuta'ra iritxi.

O'Donnell'en asmoa, Zeuta'tik Tetuan'era legorrez joatea zan. Zazpi bat legua omen dira, baiñan oso bide txarra; mando-bide bat besterik ez. Ta esku batera mendimalkarra ta bestera, eskerretara, Mediterraneo itxasoa.

Orduan, batzuek bidegintzari ekin zioten. Ta bitartean besteak armak eskuan eta erne beren lagunak zaintzeko, usterik gutxienean moroak galeraztera agertzen baitziran.

1859.XII.29: Itxasontziak, Tetuan'go ondartzza zaintzen zuan gazteluari kañonazoka ekin. Ango kañoiak berealaxe ixildu. Orduantxe oartu, bertan mutillak legorreratu eta gauzak errezago egin izan zitezkeala.

- 1860.I.1: Españitarrak Tetuan aldera jo. Moroak aurrera pasatzen ez utzi nai, eta *Batalla de los Castillejos* deritzaion burruka-aldia, moroen kalterako au ere.
- 1860.I.6-9: Lau egunez oso egualdi txarra. An-go bideetan ezin pausorik egin. Itxason-tziak ere ezin itxasoratu. Mutillak euripean eta goseak. Zeuden tokiari izen berria jarri zioten: *campamento del hambre*.
- 1860.I.10-14: Egualdia obetu eta aurrera. *Cabo Negro* izeneko muturra eta Azmir ibaia igaro, eta Tetuan'go bixtara iritxi.
- 1860.I.16: Ros de Olano'ren soldadu-taldea, irugarrena, Tetuan'go ondartzan legorreratu.
- 1860.I.23: Españitarrak beren erregeren eguna ospatzen ari, eta moroak etorri ta burruka.
- 1860.I.31: Guad-el-Jelú'ko burruka, moroak erasota. Guad-el-Jelú ori, Tetuan eta bere ondartza bitarteko ordeka da.
- 1860.II.4: Españitarrak atakea jo. Moroak ezin eutsi eta beren kanpamentoa galdu. Burruka oni, *Batalla de Tetuán* deritzaio liburuetan.
- 1860.II.5: Moroak, gabaz, Tetuan'dik alde egin baiño leen, juduen ballaran sartzen dira,

eta an arrapaketan eta lapurretan alegi-
ña saiatu.

1860.II.6: Españitarrak Tetuan'en sartu.

1860.II.11: Muley Abbas'ek, erregeren anai eta gerra artan moroen buruzagi zanak, lau mandatari bialtzen ditu Tetuan'era pakeaz itzegitera. O'Donnell'en erantzuna: Madrid'ekin itzezin bear duala lenengo, eta andik bost egunera, 16'an, berriz etortzeko.

1860.II.16: Moro mandatariak berriz ere etorri. Madrid'tik ere erantzuna bialia zuten. Onoko baldintza auk eskatzen ziran, pakea egiteko: españitarrak Zeuta inguruan zuten barrutia, zabaltzea; Melilla ta abar, leen bezela jarraitzea; Santa Cruz ugartean, españitarrak leen ainbateko tokia izatea arrantzarako; alkarrekin komerziatzeko tratu bat egitea; kristau mixiolariak Fez'en bizitzeko eta nunai predikatzeko baimena; moroak ogei milloi duro ematea; ta Tetuan betirako España'rentzat izatea.
Azkeneko au, ezin onar zezaketela diote mandatariak.

1860.II.23: O'Donnell jenerala ta Muley-Abbas, alkarrengana bildu eta luzaro mintzatzen dira. Baiñan Tetuan'go ori oztopo-arria dute. Iñork ez du amor ematen, eta pa-

kerik egin gabe alkarrengandik partitu.
Gerra, beraz, berriz ere. Baiñan egonal-
di ori moroen mesedetarako izan, indar-
berritzeko denbora eman baitzien.

1860.II.25-26: Gerra-itxasontziak, Laratxe eta
Arzilla erriai kañonazoka ekin.

1860.II.27: Euskaldunak iritxi. Lau batalloi zi-
ran; iru milla mutil.

GERRA-PRESTAKETAK EUSKALERRIAN

Leen esan bezala, Afrika'ko gerra 1859.X.-22'an asi zan. Andik laixter, Azaroaren 4'an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko ordezkariak Bergara'n bildu eta onoko erabaki aukeratu zituzten: lau milloi erreale gerrarako ematea; mutilak armetara deitzea, baiñan fueroak agintzen zuten erara; eta lau batalloi osatzea, iru mila soldadu alegia.

Batalloi oiek *Tercios Vascongados* izenez ezagutu ziran orduan, eta gaur ere orrela esaten zaie kondaira-liburu guzietan.

Gipuzkoa'ko probintziak batzar berezi bat egin zuan Tolosa'n, Azaroaren 10'etik 13'era.

Lenengo, batzar ura zertarako zan aditzera eman zan; urrena, Bergara'n artutako erabakiak azaldu ziran, eta danak ao batez ontzat artu zituzten.

Gipuzkoa'k gerrarako prestatu bearrak, 1.136 mutil omen ziran. Orretarako, lenengo *voluntarioak* artzea erabaki zan; ta ondoren, faltako ziranak osatzeko, erri guzietan ogei urte-tik ogei ta amarrera bitarteko mutil ezkongai

guzien zerrenda bildu eta aien artean zotz egi-
tea.

Diputazioak, mutil bakoitzari, bi milla ta
bosteun erreal emango zizkion: bosteun, izena
ematerakoan, eta bi milla; gerratik etorritakoan.
Bi milla oiek etxeakoak artuko zituzten, iñor ge-
rran iltzen bazan ¹.

Bizkaitarrak ere batzar berezia egin zuten
Gernika'n Azaroaren 10'etik 13'era, eta Berga-
ra'ko erabakiak onartu; 13'an, illuntzerako, atze-
ra Bilbao'n ziran diputaduak.

Aiek etorritakoan, soñu-banda kaxkar bat
antolatu eta kalez kale ibili ziran irureun bat
lagun, karlisten lenengo gerratean ain ezaguna
izan zan onoko kanta au kantatuaz:

Ai, ai, ai, mutillak,
biba lanzeruak...

Urrengo egunetan ere olatsu ibili ziran. Bai-
ñan kopla berriak kantatzen zituzten. Oietako
bat, onoko au:

Ai, ai, ai, mutillak,
biba bizkaitarrak,
ai, ai, ai, mutillak,
muera marruekuak.

Bereala asi omen ziran *voluntario* batzuk Di-

1. Gipuzkoa'ko batzarraren argibide auek, Dipu-
tazioaren agiri-liburuetatik artuak ditugu.

putaziora etorri eta beren burua Afrika'rako eskeintzen. Zer esanik ez, ondo artuak izango zirala².

Gazteiz'en, Azaroaren 27'an, batzar berezi bat egin zuan erriko etxeak, eta bertako *voluntarioak* non eta nola izenak eman eta abar erabaki zan.

Fueroak agintzen zutenez, gipuzkoarrak, beren probintzian etsaiak sartzen baziran, orduan danak zeuden armetara beartuak. Baiñan Españi'tik kanpora edo Españi'ko beste probintzietara joateko, etzegoan iñor beartua; *voluntarioak* bakarrik joaten ziran orduan.

Urte aietan, ordea, batetik industria asi berria eta bestetik trenbidegintza, lan asko zegoan Gipuzkoa'n; eta orregatik, *voluntario* iñor gutxi agertuko zalakoan, kinta deitu eta zotz egitea erabaki zuan, dakigunez, diputazioak.

Baiñan, Pirala kondaira-idazleak kontatzen duanez, Oiartzun'go mutillak, fueroen kontra zala-ta, etzuten ori begi onez ikusi. Ta erriko etxera sartu, zotz egiteko kutxa lurrera bota eta iges egin zuten mendira.

Gertatuaren berri ikasi zutenean, probintziko agintariak bildu egin ziran. Bestetan ere Oiartzun'en bezela gertatzen bazan gauza onik etzala, garbi ikusten zuten.

Comandante general deitzen zanak, —gaur—

2. Bizkai'ko batzarraren argibide auek, Bilbao'ko *Irurac-Bat* periodikotik artuak, 1859.XI.14-22.

ko *gobernador militar* bezela-edo izango zan—, soldadu-talde bat bialdu nai zuan mutil aien atzetik.

Baiñan *gobernador civil*-edo zanak, bestela pentsatzen zuan: mendi ta baso aietan mutil aien atzetik soldaduak zer egiñik etzeukatela; ta ola asi ezkeru, fueroen kontrako zera zala bazter guzietara zabaldu eta Gipuzkoa guzian berdintsu gertatuko zala; obe zala onez-onean gauzak konpontzea.

Ala, Oiartzun'go alkatea bitarteko jarrita, mutillak ostera beren etxeetara biltzea lortu zuten.

Orduan, mutil aietan buru egiten zutenak bildu eta Manuel Somoza jauna, Gipuzkoa'ko *corregidor político*-edo zana, erritan asi zitzaien, berariz noski, ustel batzuk zirala esanaz; kobarde utsak alegia, moroen bildurra besterik etzutenak.

Ta mutillak orduan, akullukada orrek eraginda, *voluntario* joateko beren izena eman...

Araba'ko Ayala barrutian, berriz, gauzak legunago gertatu ziran, 1860.I.1'eko *Irurac-Bat*'ek kontatzen duanez beintzat.

Ayala barruti orrek ogei ta lau erri biltzen omen zituan, eta Respaldiza zan erri oietan buru egiten zuana.

An ere nor gerrara joan zotz egin bear zalata, 1859.XII.27'garrena aukeratu zan langintza orretarako.

Lenengo, meza nagusia eman zan. Sermoia,

Kejana'ko erretore zan eta komentutik kanpora (*exclaustrado*) bizi zan Aita Julian Andres'ek egin zuan.

Andik atera eta zotz egitea. Bildutako jendetza artuko zuan barrunberik erri artan ez izaki eta kanpoan egin zuten; iru arte aundi ba omen ziran eta aien ondoan. Eguzki ederra eta egualdi ona egiten omen zituan eta orri eskerrak.

Ogei ta amaika gazte bear omen ziran andik Afrika'rako, eta, aiek berexitakoan, bazkaldu egin zuten. Bazkaltiarak, eun ta berrogei ta amar lagun baiño geiago izan omen ziran: berexitako gazteak, errietako alkateak, gaiñontzeko agintariak, apaizak eta abar.

Bazkari au izan zuten: potaje aundi-ederra, arroz, barbantzu eta bost arrua bei-aragirekin egiña. Zopa ederra. Postrea, gaztañak. Ogi ona eta ardoa.

Urrena, Kejana'ko mojak gazte aientzako *eskapularioak* bazituztela eta sermolariak mutilai aietxek jarri.

Ta azkenik, illundu ondoren, bakoitza bere etxera.

Urrengo goizean, ogei ta amaika mutil aiek ostera bezperako tokira bildu ziran. Bazkari arin bat egin eta andik Gazteiz aldera abiatu ziran, oiñez seguru aski, santsoka eta fueroai, erregiñari ta *terzioai* bibaka bidea egiñez.

Bilbao'ra ere asi omen ziran mutillak errietatik etortzen; Izpazter, Orduña eta beste zenbait errititik, atabala joaz etorri ere.

Tolosa'n bildu ziranak, oso mutil ederrak omen ziran, 1860.I.4'eko *Irurac-Bat*'ek dionez beintzat:

«Tolosa, 2 de enero: Pasan de 600 los voluntarios ingresados... Es imposible ver gente más selecta que la de estas compañías y escuadra. Los gastadores altísimos y hercúleos, los granaderos de gran estatura y fortaleza, y los cazadores ágiles, robustos y fornidos».

Lau batallioiak onela antolatu ziran: lenengoa, arabarrak osatu zuten: bigarrena, gipuzkoarrek; irugarrena, bizkaitarrak; eta laugarrena, gipuzkoarrek eta bizkaitarrak.

Batalloi bakoitzak bandera bana zuan. Bigarrenak eraman zuana, auxe izan omen zan:

«...sobre los colores nacionales en tela de hermosísima seda, aparece en primer término y como asunto principal el escudo real de Castilla y León; sobre éste el letrero *Tercios vascongados*, 2.^o *tercio*, y al pié del citado escudo las tres manos enlazadas formando ángulo recto y con el lema vascongado de *Irurac-bat*»³.

Laugarrenak eraman zuana ere, berdintsua zan. Bi bandera oiek, gaur egunean Gipuzkoa'ko Diputazioan gordetzen dira, iñork ikusi nai baiditu.

Zer jazkera zuten, onela adierazten du idazle batek:

3. *Irurac-Bat*, 1860.I.10.

«El uniforme era el actual de los Miqueletes de Guipúzcoa, salvo que en la boina llevaban borla dorada los jefes y oficiales y de lana las clases de tropa»⁴.

Ta beste batek:

«El uniforme se componia de poncho azul, pantalón encarnado, polainas de cuero y boina encarnada»⁵.

Irakurleak, azalean ezarri degun garai artako *grabadoari* begiratzea dauka; ol-ola jantziak ikusiko ditu mutillak.

Ofizialak militarretatik artu zituzten; bainañan jaiotzez edo jatorriz euskaldunak ziranak.

4. Pedro M. de Soraluze: «23 de marzo de 1860/Wad-Ras», *Euskal-Erria*, 1913.

5. «El País Basco juzgado por los extraños. Los Tercios Bascongados en Africa», *Euskal-Erria*, 1890.

FUEROAK

Ogei bertso auek, or goiko izenburu orrekin berarekin, Tolosa'ko Manuel Urreta zanak eman zigun bertso-paper batetik ditugu.

Paper orrek ez du egillearen izenik, ez-eta moldiztegiarenik ere.

Orain ari geran gerra-denborakoa dala, 18' garren bertsoak salatzen digu:

Tanjerren ipiñirik
español bandera...

Oso paper eder, aundi ta apaiña da; moldiztegi-lana ere oso txukun eta dotore egiña. Lenengo argitaraldia izango da, gerra-denboran aterea alegia, paperaren eta letraren itxurak aditzera ematen dutenez beintzat.

* * *

Urrengo argitaraldia, guk eskuetaratu ditugunetan, J. J. Santesteban'en *Colección de Aires Vascongados* izeneko kanta-bilduman arkitu degu. Onek, izenburuaren azpian, onela dio: *Letra de F. A. Tolosa*.

Nor ote degu bertso-jartzalle ori? Guk, beintzat, beste laguntzarik gabe, ezin somatu.

Bertsogintzari eta erabiltzen dituan arrazoi-bideai begiratuta, ez degu uste mendiko bertsolariren bat danik, gizon eskoladun bat baikik.

Santesteban'ek, oi duanez, doñua kanturako eta pianorako dakar. Guk, berriz, kanturakoa bakarrik azalduko degu emen.

Bertsoak, batere aldaketarik gabe daude.

* * *

Irugarren argitaraldia, Etxeberria ta Gimon' en *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman arkitu degu.

Onek, bertsoak norenak diran adierazteko, onela dio: *Poesía de F. A. Tolosa*.

Ta doñuagatik, berriz, onela: *Música de XXX*. Onek ere doñua berdin: kanturako eta pianorako. Baiñan kanturakoa Santesteban'ek dakarrena da; ta pianorako beste *armonizaxio* bat jarri dio.

Ta batere aldaketarik gabe onek ere bertsoak.

* * *

Oso urrutitik artzen ditu urak bertso auen egilleak: Noe'ren denboratik. Gero, pixkanaka,

urbiltzen dijoa: Gipuzkoa 1123'an adiskidetu zala Nafarroa'rekin; 1200'an Gaztela'rekin bildu zala; 1335'an fueroak idatziz jarri zirala eta Enrike bigarrenak onartu zituala, eta abar ta abar.

Baiñan oiek danak, gure iritzirako beintzat, prestaketak dira. Egillea zertara dijoan, benetako elburua zer duan, 18'garren bertsoak agertzen du. Orregatik, osorik jarriko degu emen.

Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitegarriak
gordeko badira;
Tanjerrren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.

Alegia, gerrara joatea bearrezkoa zala, eta ori fueroak gordetzearren.

Izan ere, Bergara'ko besarkada ezkeroztik, fueroak erdi kolokan zeuden. Ikus, adibidez, Pablo Gorosabel'ek zer dion, bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* liburuan, *El estado de la cuestión foral* izeneko atalean.

Orregatik, emengo diputazioak, beste edozeiñek ainbat lagundu nai zuten gerra artan; eta euskal probintziak beste guziak bezin abertzale zirala agertu. Alegia, etzezala iñork zer esanik izan, probintzi auen eta beren fueroen aurka.


Ain zuzen, gerra piztu eta Tolosa'n leen aitaturako batzar berezia egin zanean, Gipuzkoa'ko *corregidor político* zan Manuel Somoza jaunak itzaldi labur bat egin zien aurretik diputaduai, bukaeran onela esanaz:

«La guerra, contra los bárbaros del Riff, tan popular en España, tiene las simpatías del mundo civilizado; y la Diputación general, en su previsión y patriotismo, no se ha considerado dispensada de acudir á vuestro ilustrado criterio en demanda de auxilios para desagraviar el orgullo nacional. De vosotros pende ahora el fallo, que tanto puede influir en las glorias y en el porvenir de Guipúzcoa».

Berak Gipuzkoa'ren etorkizuna aitaturik, entzuleak fueroen geroa ulertzea nai zuala, dudarik ez da.

Baiñan, ziur asko, Oiartzun'go mutillak ere badute zer ikusirik bertso auekin. Aiek asaldatu izan ez balira, etzan bearbada bertsorik izango. Mutil aiek erakutsi zuten, Gipuzkoa olako «sermoi» baten premian zala.

Ta diputazioak-edo eskatuta, bertso-jartzalderen batek bertso auek parako zituan.





1/ Adierazo nai det
izketa klaroan
euskerak ta fueroak
noiztik nola diran;
aspalditik nedukan¹
jarria buruan
Iputzen onerako
egingo ote nuan.

2/ Noeren familiko
Tubal zeritzona
Armenia'tik onera
zitzaigun aurrena;
arengandikan degu
izkuntz aiñ ederra,
zarragorikan ez dan
maitatsu euskera.

1. Bertso-paperak: *aspalditik neukan.*

3/ Ejiptzio, kaldeo,
hebreo, griegoak,
kartajines, romano,
alano, sueboak,
bandalo, godo, arabe
eta sarrazenoak
Españi'ra zituzten
txit gerra gaiztoak.

4/ Emengo mutillaren
koraje firmeak
Españia'tik bota
zitun erejeak;
eta maite gaituzte
gure erregeak,
merezi bezelaxe
euskaldun jendeak.

5/ Ez da zer duda egin,
gu gera aurrenak,
Portugal'dik Frantzi'ra
denetan zarrenak,
Jafeten bostgarren seme
Tubal onarenak,
Españi'en asiera
eman genduenak.

6/ Noizetikakoa dan
gure izatea,
ez da posible orain
nik esplikatzea;
saiatu naiz alegin
ori billatzea,
alferrik izandu da
nere nekatzea.

7/ Libre bizitu ziran
republika onetan,
iñoren mende gabe
lenengo urtetan;
milla eta eun da
ogei ta irutan
nafarrakin aurrena
adiskidetu zan.

8/ Ala segitu zuten
alditxo batean,
asarrez apartatu
ziraden artean,
ezin konpondurikan
bear zan pakean,
milla eta berreun-
garrengo urtean.

9/ Gerra besterik ez zan
denbora aietan,
eta pensatu zuten
estadu onetan:
laguntza izateko
estutasunetan,
bear zala unitu
erdaldun jendetan.

10/ Alfonso zortzigarren
zori onekoak
beregana ginduzen
gipuzkoanoak,
agintzen zizkigula
ginduzen fueroak,
errege maitagarri
Kastilletakoak.

11/ Oek guztiak ziran
tratu itzezkoak,
ala segitu zuten
denbora artakoak,
gordeaz osotoro
alegin fueroak
gure gobernatzalle
probintziakoak.

- 12/ Emengo alkateak
bildurik Tolosa'n,
eskribi zitezela
denak agindu zan;
bai eta egin ere
al zuten prestezan,
probintziak kalterik
izandu ez zezan.
- 13/ Milla irureun ta
ogei ta amabost zan,
alkateak bilduba
gure erri Tolosa'n;
eta eskribiturik
urte artan bertan,
erregeri eramana
aprobatu zitzan.
- 14/ Enrike bigarrena
zegoen tronoan,
Abendu illak ogei
zituen orduan;
konfirmatu zizkigun
bear zan moduan,
merezia dezala
gozatu zeruan.

15/ Ez da bada dudarik
len ere baziran,
bestela konfirmatzen
ariko ez ziran;
askotan ibilli dira
jira eta biran,
gorde dituzteneko
gizonak baziran.

16/ Unio on bat bear da
elkarren artean,
erriak aurreratu
oi dute lanean;
eta gerrarik balitz
noizbait ondorean,
españolak gerade
guztien gañean.

17/ Ez beldurrikan izan,
euskaldun jendea,
gordea degu ongi
fueroen legea;
erregiña daukagu
ezinik ohea,
maite gaituen ama
parerik gabea.

18/ Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitegarriak
gordeko badira;
Tanjerren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.

19/ O, soberana eder
pobrearen ama,
kontentuz beterikan
gaude gu zugana;
ongi merezi dezu
dadukazun fama²,
Jaunak eman deizula
zuri osasuna.

20/ Biba Euskal-erri ta
biba erregiña,
elkarri laguntzera,
egin alegiña;
noizbait kanpotarretaz
estutzen baziña,
emen daukazu jende
erne eta fiña.

2. Bertso-paperak: *daukazun fama*.

RECUERDO DE LA GUERRA DE AFRICA

Bertso pare au, —lerro bat erderaz eta urrena euskeraz—, *Euskal-Erria* aldizkaritik artua degu¹; izenburua ere, toki beretik.

Izenburuaren azpian onela dio: *Serenata dedicada al general Latorre por su sargento R. de Gorostidi*. Ta gero, bertsoen ondoren, onela: *Música de R. S. Letra de G. E.*

R. S. ori, seguru aski, Raimundo Sarriegi, garai artako musikalaria ezaguna, izango da. Baiñan doñu ori, ez degu iñon ere arkitu.

G. E. ori, berriz, bertsoen egillea alegia, ez dakigu nor izan diteken.

Ta R. de Gorostidi ori, bertsoak kantatu zituana izango da. Alegia, Latorre jeneralari ongi-ettoriren bat-edo egingo zioten Donostia'n eta orduan.

Latorre orrek, leen esan bezela, emendik Afrika'ra joan ziran mutilen buruzagitza izan zuan. Jatorriz euskalduna omen zan; *oriundo de Vasconia* esaten dio Jesús de Izarra'k².

1. *Euskal-Erria*, 1907.

2. *Contribución de sangre* izeneko idazlana, *Euskal-erriaren alde*, 1925.

Espasa iztegiak, berriz, onela dio:

«Torre (Carlos María de la): *Biog.* General español, n. en Sevilla el 25 de Julio de 1809 y m. en fecha que desconocemos. Perteneciente a una acaudalada familia de aquella ciudad, ingresó muy joven en el Ejército, en el que ascendió hasta mariscal de campo. Figuró también en política y fue diputado en las Cortes de 1854».

Emengo mutillak, norbere diputazioaren kontura jantzi ta armatu bear omen ziran. Ala ere, Latorre jeneralak ez omen zuan ori oso lan errexa izan. Onela dio Germond de Lavigne'k:

«Podría hacerse una crónica con las peregrinaciones y aventuras del general Latorre en busca del armamento para los tercios. Fué á París á comprar carabinas de precision y no pudo encontrarlas; de París pasó á Lieja, que habia recibido hacia tiempo el encargo de fabricar ocho mil fusiles para España; no halló nada dispuesto, y volvió á San Sebastian desesperado. Se renunció á dar á la legión bascongada armas selectas y hubo que recurrir á las fábricas del Norte de la Península, ínterin las de Lieja podían mandar á Ceuta las carabinas que debían hacer maravillas en manos de los excelentes tiradores de Guipúzcoa, Bizcaya y Alaba.»

Leen aitatu degun eta itz auk idatzi zituan Lavigne ori, frantzes idazle bat zan. Ros de Olano jeneralaren laguna izaki eta arekin ibili zan Afrika'n. Gero, liburu bat idatzi zuan gerra artaz. Liburu ori ez degu iñon ere arkitu. Baiñan aitamen ori, 1890'eko *Euskal-Erria* aldizkaritik, *El País Basco juzgado por los extra-*

ños /Los Tercios Bascongados en Africa idazla-
netik artua degu.

- 1/ *Don Carlos de Latorre*
gure jenerala,
el cielo nos ha dado
guk bear bezela.
Valiente y entendido
gerrari azkarra,
dirán las naciones
euskalduna dala.
- Sí, sí, sí, sí, sí, sí,*
mi general,
dirán las naciones
euskalduna dala.

- 2/ *Cuando llegue el día*
sutara juateko,
con bayoneta armada
dizut jarraituko,
degollando los moros
Tetuan artzeko,
en seguida Tánger
guretzat betiko.
- Sí, sí, sí, sí, sí, sí,*
mi general,
en seguida Tánger
guretzat betiko.

BERTSO BERRIAK
ZUBIRIA'K JARRIAK

BIBA GURE ESPAÑA TA
ESPAÑOL GUZTIAK

Zortzi bertso aukeratuak, «*Tolosan, Mendizabalen alargunaren moldizteguian*» paperetan argitaratuak eman ziran.

Paper oietatik ale bat, gaur egunean Chicago'ko *New Library*'n dago, Bonaparte'k osatu zuan bertso-bilduman, eta andik onera mikro-filmez bialdu ziguten.

Bertsoetatik ageri danek, gerra asia zan, baiñan emengo mutillak artean ara joan gabe ziran.

Egillearen abizena izenburuak ematen digu: *Zubiria*. Baiñan ez dakigu ez nor zan eta ez nongoa.

Azken bertsoan dionek, bera ere gerrara dijoa; eta bertso aukeratuak, ara baiño leen, Euskal-herriari agur egitearren-edo paratzen ditu.

1/ Bertsoak paratzeko
naiz ni preparatu,
España ta moroak
beaitut nonbratu;
marruekotarren kontra
da gerra formatu,
aurrera, bai, mutillak,
ez bada bildurtu.

2/ Españolen odola
da guztiz beroa,
laister kenduko degu
ango enredoa;
len eskarmentaturik
juan zan moroa,
igesi egin zuten
utzirik errestoa.

3/ Opinio guztiak
bear dira aztu,
danok alkar arturik
batera juntatu;
ala egin ezkeru
zeñek gu bildurtu?
Marruekotar danak
biaitugu ikaratu.

4/ Tropa guztiak dijoaz
umore onean,
deseotan jartzeko
moroen aurrean;
laister ikusiko da
Españiya pakean,
bandera jarririkan
toki onenean.

5/ Zer egingo dute bada
moro kuitadubak,
ikusi ezkeroztikan
gure soldadubak?
Alkarri beiratu ta
atera kontubak,
laisterka pasatzeko
atzeko pausuak.

6/ Gure euskaldun maiteak,
orain da denbora,
esan biotzetikan:
«Españolak gera;
gerra gustokua degu,
guztiok batera
alon, bada, mutillak¹,
segitu aurrera!».

1. Esan orrela egiten da, baiñan idatzi, *allons* egin bear litzake. Frantzes itza da. *Goazen* esan nai du.

7/ Euskaldun soldaduba
gutziz balientea,
ez du, ez, guardatu nai
bere balorea;
borondate onarekin
artzen du partea,
España'n goza dezagun
betiko pakea.

8/ Adios, bada, guztiok,
baguaz gerrara;
ez penarik eduki,
laister emen gera;
etortzen geranean
atera kalera,
esan biotzetikan:
«Españolak dira».

AITA ARREN SEMEAI
A LOS TERCIOS VASCONGADOS
ZORTZIKO

Zortzi bertso auek iru tokitatik ditugu:

Lenengo, «*Donostian: Ignacio Ramon Baroja-ren moldixteguiari*» argitaratu eta gaur egunean Chicago'ko *New Library*'n, Bonaparte'ren bilduman dagoan bertso-paper batetik.

Bigarren, Donosti'ko J. J. Santesteban'en *Colección de Aires Vascongados* bildumatik.

Ta, irugarren, Aita Jose Antonio Uriarte'ren (1812-1869) eskuz-idatzitako bildumatik.

Bañan ez dute aldaketarik alkarren artean.

Baroja'ren etxeko paper ortan eta Aita Uriarte'ren bilduman, izenburua ia dana erderaz dago: *A los Tercios Vascongados / Zortziko*. Santesteban'enean, berriz, dana euskeraz: *Aita Arren semeai*. Bigarrenengo au ipintzen degu guk emen aurretik, eta bestea ondoren.

Bertso-paperak eta Santesteban'ek ez dute egillea nor dan esaten. Aita Uriarte'k, berriz, izenburuaren ondoren, onela dio: (*Embil*). Egillearen abizena ote da? Ditekena da. Baiñan, nornai izanik ere, ez da erri-bertsolari bat, bertsoetatik ageri danez.

Santesteban'ek doñua ere badu. Oi duanez, kanturako eta pianorako. Guk kanturakoa bakarrik agertzen degu emen:

The musical score is written on eight staves in G major (one sharp). It begins with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The first staff has a treble clef and a key signature of one sharp. The second staff has a treble clef and a key signature of one sharp. The third staff has a treble clef and a key signature of one sharp, with first and second endings. The fourth staff has a treble clef and a key signature of one sharp, with dynamic markings *p* and *cresc.*. The fifth staff has a treble clef and a key signature of one sharp, with a dynamic marking *f*. The sixth staff has a treble clef and a key signature of one sharp, with first and second endings and a final ending marked "2 FIN". The seventh staff has a treble clef and a key signature of one sharp. The eighth staff has a treble clef and a key signature of one sharp.



- 1/ *Goazen, goazen, mutillak
goazen Afrika'ra,
moruak jakin dezan
gu ere an gerala.
Baionet zorrotzakin
sartu beretara,
ekarri bear degu
marroki bandera.*

- 2/ Terziyo euskaldunak
txit mutill azkarrak,
ez ditu garaituko
moruen indarrak.
Guztiz beroak dira
euskaldun odolak,
ikaratuko ez ditu
txistu balarenak.

3/ Euskaldun jende noble
paregabekoak,
baliente eta prestu,
gaiñ-gañetakoak.
Doai au eman zigun
gure Jaungoikoak,
pruebak emanak daude
geren gurasoak.

4/ Pavía'ko batallan
Juan de Urbieta'k
preso gelditu zuen
errege frantzesa.
Euskaldunentzat au da
oroipen galanta,
iñork dudarik badu
istoriyak daka.

5/ Legorrez eta itxasoz
euskaldun jendeak
daude oraiñ eta len
gloriaz beteak.
Okendo ta Txurruka
eta Otalora'k,
gerrariyak zirala
badirade pruebak.

- 6/ Lenagokoak ezen
oraingo mutillak
ez dira eskasago,
bai aien berdiñak.
Onore andia dute,
gorputza liraña,
moro kasta guztia
ez da oriyeñ diña.
- 7/ Isabel bigarrena,
gure erregiña,
euskaldunak dizute
biotzetik griña.
Onen defensarako
egiñ alegiñak,
naiz kanpoan gelditu
luze-luze illak.
- 8/ D. Karlos de Latorre.
gure jenerala,
zure mendean guaz
laster peleara.
Zuk agindu ezkerro
noiznai listo gera,
baita jartzeko ere
Tanjer'en bandera.

GIPUZTARREN ALABANTZARAKO ITZ NEURTUAK

Urrengo bertso auek, or goien ipiñi degun izenburu orrekin berarekin, Tolosa'ko Antonino Lakuntza zanaren eskutik jaso genduan bertso-paper batetik ditugu.

Chicago'ko *New Library*'n ere badute bertso-paper ori, beste ale bat alegia, Bonaparte'ren bertso-bilduman.

Non argitaratua dan, onela adierazten da paperaren beeko barrenean: «*Tolosan: Andres Gorosabelen echean 1860*».

Damurik, paperak ez du egillearen izenik esaten, ez-eta ori somatzeko argibiderik ematen.

Bertsoetatik ageri danez, emengo mutillak artean Afrika'ra joan gabe daude.

1/ Gazte jende eder bat
eziñ oberikan,
jarri ta zegoana
ondo gorderikan,
Marruekoetara
laster emendikan
irten biarra dago
noski oraindikan.

2/ Gazte galai ta joiak
zein balientiak
diran gure mutillak
euskaldun maitiak!
Egitera dijoaz
Afrika'n pakiak,
emanaz moroairi
naiko konbatiak.

3/ Aurrena sutan asi,
azkena atera,
oiek egingo dute
arakin-papera;
ez dirade juango
gizonik jatera,
baña ez salbajerik
etorri aurrera.

4/ Nola moroak iñon
bentzitu iñola
euskaldun ederraren
zaña ta odola? ¹
Testigu izango da
txit sarri denbora:
barkazio eskatzen
letozke ondora.

5/ Zeuta'n sartu eta
andikan barruna,
Tetuan'dik Tanjerr'a
daukagu fortuna;
kolerak galdu gabe
gure osasuna,
laster gure mende da
beltzen ondasuna.

6/ Tanjer artu ezkerro,
naiz askok jakiñ ez,
dago ezkerretara
erri bat Mequinez;
orrera joan bear da
zortziko ariñez,
kontrario danari
su firme egiñez.

1. Bertso-paperak: *zaña ta da odola*.

7/ Ara joan ezkeru,
au da Mequinez'a,
an dago moro danak
duten interesa;
enperadore jaunak
garbi esan beza:
nor diran aberatsak,
nork duan pobreza.

8/ Enperadore ori
norekin dan bizi,
gaur naiz adituzera
seguru iritxi;
ez badu, diotenez,
dirua aĩn gitxi,
mutillak, Serrallora
guazen lenbizi!

9/ Nobiak aukeratu
gustokorik balitz,
beltzak zurien zale
omen dira agitz;
ni onetan engañuz
ibiltzen ez banintz,
dirua eta damak
karreatu zaldiz.

- 10/ Asi naizan lanean
nago guztiz bero,
bai eta fio ere
oraindik entero;
armak mutil gaztiak
eraman ezkeru,
laster det bitoria
oso bat espero.
- 11/ Ea, mutil maitiak
txit biotzekoak:
len luzitzen bazuan
noiznai Gipuzkoa'k,
eman aurki pruebak
onenetakoak,
errazki garaituaz
moreriakoak.
- 12/ Biba Diputazio
erri danen *Ama*,
biba militar danak
daukatenak arma;
sostenitu dezagun
beti degun fama,
ez dedin kasta txarrik
etorri gugana.

*Arren, eder gaztiak,
artu gaberik min,
portatu biazute
zeraten bezin fin.*

*Zuengan jartzen degu
biar dan grazia,
defendi ezazute
zeren probintzia.*

*Naiz bala-txistuakin
ta naiz baionetan,
ez, gaztiak, bildurtu
gerrate onetan.*

*Galtza berri gorriak,
txaparekin boina,
balio du moroak
guztiak ez aiña.*

**HIMNO GUERRERO
DE LOS
TERCIOS VASCONGADOS**

*DEDICADO A SU COMANDANTE GENERAL EL
EXCMO. SR. MARISCAL DE CAMPO
D. CARLOS DE LATORRE*

Bertso auek, batzuek erderaz eta besteak euskeraz, or goiko izenburu luze orrekin, gaur egunean Chicago'ko *New Library* dagoan Bonaparte'ren bildumatik ditugu.

Moldiztegi-izena onela duan bertso-paper bat da: «*VITORIA: Imp. y Lib. de Juan Pujol*».

Erderazko bertsoak firmaturik daude: *M. de Ciórraga*. Bai euskerazkoak ere: *Juan J. de Ibazeta*.

Euskerazkoak, Aita Uriarte'ren eskuz idatzitako bilduman ere badaude. Izenburua onela dute: *Marruekos'ko gerrakuak*; eta azpian, egillearen izen-abizenak, beste onela: *Vitorio Ibazeta*.

Bilbao'ko *Irurac-Bat* egunerokoan ere agertu ziran bertso auek, 1859.XII.2'an. Lenengo, euskerazkoak, *Juan J. de Ibazesa* firmarekin; eta, ondoren, erderazkoak, Ziorraga'renak alegia,

erria ta eguna onela adieraziaz: *Vitoria, 1.º de diciembre de 1859.*

Euskerazkoen aurretik onoko adierazpen au irakurtzen da:

«Con gusto damos cabida á esta entusiasta poesia vascongada que su jóven autor desde Marquina nos dirige. Estamos seguros que la leerán con mucho placer nuestros suscriptores vascongados».

Ta Aita Uriarte'k, Markina'tik eskutitz bat egin zion Bonaparte'ri 1859.XII.21'an eta onela dio:

«Remito a S. A. el «Irurac-bat» del 4 de este mes¹, que en la tercera cara trae los «Versos» de Ibaseta. Los más de los poetas de Marquina, excepto los Mogueles y Astarloas, tienen el gusto, o la manía, de intercalar algo el guipuzcoano. Yo hubiera querido estuviesen en vizcaíno puro; pero cada uno en esto es dueño de hacer lo que le acomoda»².

Beraz, Ibazeta ori nongoa zan badakigu: Markina'koa; baiñan beste ezertxo ez degu aretzaz ikasi.

Leen esan bezela, bertso auker Gazteiz'en eman ziran argitara paperetan. Ziorruga ori bearbada angoa izango zan-ta. Baiñan erdera utsa etzitzaien aski iduri eta euskera ere sartu nai

1. Ontan oker dago; illaren 2'an atera ziran bertso auker.

2. *Boletín de la R. S. V. de Amigos del País*, X, 1954, 293-4 orri-aldeetan.

izan zuten. Onek esan nai du, orduan ere gure izkuntza xaarra bazala zerbait arabarrentzat.

Irurac-Bat ortan, bertsoak paperetan bezelaxe daude, ezeren aldaketarik gabe.

Aita Uriarte'ren bilduman, berriz, zenbait aldaketa badituzte. Bertsoen ondoren ezarriko ditugu. Baiñan danak, edo geienak beintzat, euskera bizkaieratzearren sartuak dira. Bonaparte'ri egindako eskutitz orretan, Markina'ko bertsojartzalleak beren lanetan gipuzkoerara makurtzen zirala-ta bere arrenkura azaldu digu; eta, agidanean, bertsoak kopiatzerakoan, «kutsu» orretatik garbitzen alegindu da.

Euskerazko bertso batek onela esaten du:

Ator, ator i bere,
ingeles arrua,
ator defenditzera
nai badek morua!

Ori zergatik dion, kondaira-liburuak irakurri ta errez ulertzen da. Inglatera'k aspalditik Gibraltar bere mendean zeukan, eta etzuan iñola ere nai, ango beste aldeko itxas-bazterraz, Europa'korik iñor, eta are gutxiago España, jabetu zedin.

Orregatik, gerra asi baiño leentxeago, ekaitza bidean zala igarririk, onako eskari au egin zion Madrid'ko gobernuari: España'ko soldaduak Tanjer artzen bazuten, betiko mendean gorde gabe, gerra bukatu bezin laixter oster

libre utzi zezatela. Madrid'ek baiezkoaz eran-
tzun zuan.

Are geiago: España'rengandik berrogei ta
bederatzi milloi erreal artzeko zituala oroiturik,
diru ori orduantxe eskatu zuan eta España'k
pagatu.

Karlisten lenengo gerra-denboran egiña omen
zan zor ori. Orduan, armak eta abar salduz, as-
ko lagundu baitzien Inlaterra'k liberalai.

Iturri oietatik dator, dudarik gabe, bertso
auen egilleak, Ibazeta orrek alegia, inglesai dien
gorrotoa.

CORO

*¡Guerra al moro! del vasco es el grito,
que su Reina Isabel dio esta voz:
¡A vanguardia la boina encarnada!
Lleve al campo enemigo el terror.*

Muestra el vasco en la lid su bravura,
de su brazo robusto el poder,
y en asaltos de plazas y peñas
grita: *¡Aurrera*, a morir o vencer!

Y allí planta la noble bandera
del castillo y del león vencedor;
que es la España su patria querida,
y es la patria del Cid Campeador.

Media luna, la viera en el cielo;
la agarena, ver quiso brillar
en las Navas, Granada y Lepanto
con la cruz, que la hizo eclipsar.

Ahora marcha, seguro del triunfo,
que su brío no abate revés:
¡Eh, turbante, lugar a la boina!
Vedla ahí, minaretes de Fez!

¿Qué le lleva al través de los mares
a esas playas malditas de Dios?
Lo que precia muy más que la vida,
que es la vida de un pueblo... *el honor.*

De las armas de España, el escudo,
de sus glorias emblema, y su ser,
ultrajó la morisma, esa raza
que rindió la primera Isabel.

La segunda Isabel, la magnánima,
«*No a mi pueblo tamaño baldón*
—dijo altiva—; *ya basta de agravios;*
que la fuerza nos dé la razón.»

Un inmenso clamor: «¡Guerra! ¡Guerra!»,
desde el Calpe al Pirene cruzó;
«¡Guerra» Amboto retumba y Aitzcorri.
«¡Guerra al moro!» el Gorbea tronó.

Se alza armada y terrible la España,
su cimera arrogante se ve,
donde flota penacho de palmas,
que ha de orlar africano laurel.

Verdes ramos traerán a Vasconia
sus valientes, con que han de rodear
de sus fueros el árbol sagrado,
que han de darle mayor majestad.

CORO

*«¡Guerra al moro!» del vasco es el grito,
que su reina Isabel dio esta voz:
«!A vanguardia la boina encarnada!
Lleve al campo enemigo el terror».*

M. de Ciórraga

POESIA VASCONGADA ALUSIVA AL MISMO FIN

*Gerrara, euskaldunak,
mutillak, gerrara,
guztioak alkarregaz
goazen Afrika'ra.*

España'ko leoiaren
orroe-intziriak
irazartu ditube
euskaldun erriak.

Orain baño lenago
gerran nagusiak,
biba, mutillak, biba
gere probintziak!

Zer bada, uste dezu
gerala makurrak?
Ala beti gauzkala
ixilik bildurrak?

Pozez artuko deguz
fusil naiz atxurrak,
moruei birrintzeko
mamin ta azurrak.

Gerta, nere mutillak,
ez gaiten larritu;
len ere oien kontra
ez degu garaitu?

Pelayo ta Alfonso'k
zituzten beldurtu,
danakin amaitzera
oraintxe goaz gu.

Moro barregarri ta
astuen maixua,
ez al dek ezagutzen
euskaldun briyua? ³

Eskuan bandera ta
biotzian sua,
guazen, guazen, mutillak,
milla arraiua!

Ator, ator i bere ⁴
ingeles arrua,
ator defenditzera,
nai badek, morua!

3. Bertso-paperak *maijua* eta *brijua* idatzi du. Lenengo ori *maixua da*, ta bigarrena Bizkai aldeko esakera bat, *fonetismo* bat. Guk, liburu onetan, *j* ori *y* idazten degu: *briyua*.

4. Bertso-paperean: *Ator, ator bere*. Neurrian motx,

Emen ikusiko dek
euskaldun garboa,
ator ta edango dek
nai duan ardoa.

Ea bada, euskaldunak,
orain da denbora,
moruak bentzidu ta
laster emen gera.

Ez du iñork botako
pauso bat atzera,
aurrera, bai, mutillak,
mutillak, aurrera!

Juan J. de Ibazeta

beraz. Moldiztegiaren utsegite bat izango da. Aita Uriarte'ren bilduman onela esaten baita: *Ator, ator, i bere*. Ta era onetan idatzi degu.

★ ★ ★

Bertso-paper ontan ez dira bertsoak kontatzen. Puntuak ere binaka daude. Orregatik, guk ere ez degu zenbakirik jarri. Orain, ordea, Aita Uriarte'ren bildumak dituan aldaketak ezarri ditzagun, nolabait ere zenbatu bear ditugu bertso auk. Irakurleak kontu egin dezala, zortzina lerro bertso bana osatzen dala, eta guk ere orixe egingo degu. Orrela ez da ezeren zailtasunik izango. Ona, beraz, aldaketa oiek:

1/8: geure probintziyak; 2/3: ta eukiko gaituzala; 2/6: fusil nai atxurrak; 3/1: Prestau, neure mutillak; 3/3: len bere onen kontra; 3/4: ez dogu garaitu; 3/6: zituen bildurtu; 3/7: danak amaitutera; 4/7: guazan, guazan mutillak; 5/4: nai badok morua; 5/5: Emen ikusiko dok; 5/7: ator ta edango dok; 5/8: ugari ardaua; 6/4: laster emen gara; 6/5: Ez dau iñok botako.

BERTSO BERRIAK ETXANIZ'EK JARRIAK

Bertso auk, Chicago'ko *New Library*'tik ditugu; Bonaparte'ren bildumatik alegia.

Bertso-paper bat da, eta moldiztegi-izena onela du: «*Imp. lib. y enc dru de Franco y comp.^a*».

Aita Jose Antonio Uriarte'ren eskuz-idatzitako bilduman ere arkitu ditugu bertso auk. Ez du aldaketarik, izenburua izan ezik: *Marruekosko gerrakoak Gipuzko euskaran*.

Gipuzkoa'ko euskera dute, bai, baiñan bizkaieraz kutsatzen asia.

Ain zuzen, bertsolariaren izena, lenengo bertsoaren bigarren lerroak ematen digu: Etxaniz. Ta Aita Uriarte'k, Markina'tik 1859.XII.21'an Bonaparte'ri bialdutako eskutitz batean, onela dio:

«Van también en papel suelto los «Versos de Echániz» en guipuzcoano; este es un herrero de Elgóibar»¹.

1. *Boletín de la R. S. V. de Amigos del País*, X, 1954, 294 orri-aldean.

Beste argibiderik ez degu bildu, bertso auen egilleari buruz.

Oi bezela, paperak ez du *Bertso Berriak* beste izenbururik; bigarren lerro ori gerok erantsia da.

Paperak bezelaxe zenbatu ditugu guk bertsoak. Baiñan Uriarte'k ez du orrela egiten. Uriarte'ren lenengo bertsoa, gure bigarrena da. Izan ere, «Au da prinzipiua, nere asipena» asten da. Ta gure lenengo ori, edo obeto esateko bertso-gisako ori, sailla zer dan esaten digun adierazpen bat izango da.

Ain zuzen, azken bertsoan onela dio bertso-lariak: «Amasei bertso berri orain ditut jarri...» Etzuan, beraz, lenengoa bertsoztat artzen, bertso-paperak egiten duan bezela, eta guk ere, paperari jarraituaz, egin degun bezela.

Bertso auek, gerra nola ta zergatik asi dan, emengo diputazioak zer erabaki artu duten eta abar, ederki adierazten digute. Baiñan ez dute esaten emengo mutillik ara joan danik. Izan ere, Uriarte'ren eskutitzaren egunak salatzen duanez, *terzioak* osatzen eta antolatzen ari ziraneko bertsoak dira.

1/ Bertso berriak
Etxaniz'ek jarriak,
ikasi ta kantatu
gogotik gaztiak;
gerra irabaziko du
gure España'k,
biba erregiñaren
soldadu maitiak.

2/ Au da prinzipiua,
nere asipena,
bertsuak paratzeko
artu det ordena;
zer motibo izan dan
Marruekuena,
esplikatuko dizut
aditu dedana.

3/ Guardiakuak il da
paretak apurtu,
orlako lan-bideak
moroak ein ditu;
español fiñak gera,
guk ezin sufritu,
gerra orregatikan
degu oain formatu.

4/ Milla ta zortzireun da
berroge ta emeretzin,
españolak gerrara
guaz moruakin;
animoso mutillak
danok alkarrekin,
nor bere aldetikan
alegiña egin.

5/ Iru probintziako
euskaldun jentiak
egin naiko ditue
beren balentiak;
mutillak onak gera,
igual jefiak,
kapaz gera iltzeko
mororik erdiak.

6/ San Inazion gisa
soldadu firmiak
emen azaldu gera
beraren semiak;
beti gordeko gaitu
gu gere jabiak,
zergatikan geraden
euskaldun nobliak.

- 7/ Iru probintziako
Diputaziuak
orain artu dituzte
beren mediuak:
iru milla mutil da
gañera diruak
gerra orretarako
dirade ainduak.
- 8/ Aindutako itz oiek
biaira kunplitu,
obe da onorian
gaitezen gelditu;
erregiñan aurrian
jartzen bagera gu,
iñor baño geiago
estimauko gaitu.
- 9/ Erregiña ikusita
guazen *en seguidan*,
zer berri dan ikusi
dezagun Afrika'n;
moruak laster juango
dirade andikan,
españolak jarriko
gerade kapitan.

10/ O'Donnell jauna degu
danon presidente,
bere bendian badu
makiña bat jente;
errazio onak eman
eta agindu fuerte,
moruari larrua
oso kendu arte.

11/ Soldadu onak daude
gure España'n,
ez dira ikaratuko
moruen aurrian;
asten geradenian
lelengo atakian,
laster sartuko gera
Tanjér'ko fuertian.

12/ Jentia entero du
deseo andia
laster arrapatzeko
Tanjér'ko fuertia;
ori artu ezker
egin da pakia,
orduan guztiontzat
konsuelo andia.

13/ España'ko patroi
Aita Santiago
moruen kontrario
izan zan lenago;
gerra irabazita
orain zeruan dago,
zergatik egin zuan
ainbeste milagro.

14/ Patroi gloriosua,
berorren antzera,
orain guaz gerrara
moruak galtzera;
estuasunen baten
agertzen bagera,
zerutik jetxiko da
gu anparatzera.

15/ Españolok ez degu
moruen bildurrik,
jarri ezkerotikan
ondo uniturik;
lenagotikan gaude
guztiz famaturik:
ez daguala iñun
gu baño oberik.

16/ Diputazio jaunak
ondo pensau dabe
emendik bialtzia
iru batalloe;
kintak ekarri eta
ez genduben obe,
obe da gerrara juan
aita arren seme.

17/ Amasei bertso berri
orain ditut jarri,
alderdi askotara
esplikatu naiz ni;
denbora pasatzeko
dibersiogarri,
kanta au erosi leiki
txanpon bategaiti.

EUSKALDUN MUTILLEN BIYOTZAK

MORUEN KONTRA GERRAN EGITEKO
GURARIYETAN
SENDATU ETA SUTUTEKO
EUSKERAZKO BERTSUAK

Bertso auek, or goien ipiñi degun izenburu luze orrekin, Chicago'ko *New Library*'tik kopiatsuak ditugu, gaur egunean bertan dagoan Bonaparte'ren bildumatik.

Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da.

Paperaren idazkera, Bizkai'ko leengo zaarra da: *vijotzetan, gurarijetan, aldijan, guztijak...* Olakorik orain erabiltzen ez baita, *biyotzetan, gurariyetan, aldian, guztiyak...* idatzi degu. Baiñan irakurlea jakiñaren gainean bego, bertso auen egilleak, Bizkaia'n oi danez, ia-ia *bixotzetan, gurarixetan, aldixan, guztixak...* esaten zuela.

Bertso auek ere, emengo mutillak Afrika'ra baiño leenagokoak dira.

Beste iru tokitan ere arkitu ditugu: Bizkai'ko Diputazioko liburutegian, eskuz idatzitako orri batean; Aita Uriarte'ren bilduman; eta Bilbao'ko *Irurac-Bat* periodikoan, 1859.XII.1'eko zenbakian.

Aita Uriarte'k, Markina'tik 1859.XII.4'an Bonaparte'ri bialdutako eskutitz batean, onela dio:

«No sé si S. A. recibe el «Irurac-bat», por cuyo motivo remito a S. A. el adjunto número que trae el último de los Versos puestos por mí sobre la expedición de los bascongados a Marruecos. Van para que sean censurados por S. A., la D.^a Clemencia y los demás bascongados que S. A. tenga en ésa. El bascuence es de Marquina y de consiguiente con eufonías. Primeramente envié a Delmas los que van impresos, luego le remití el 5.^o, 9.^o y 10, que se hallan en el adjunto manuscrito, pero no los imprimió. Ya sabe S. A. que en el verso bascongado puede elidirse la última vocal de la palabra, si la siguiente también empieza por vocal, como en «*Anchinaco euscaldunen*» (verso 1.^o, pie 7.^o y en otros) sin faltar al metro...»¹.

Itz auetatik zenbait argibide atera diteke bertso auri buruz.

Lenengoa, bertso auen egillea nor dan: Aita Uriarte, berak aitortzen duanez.

Bigarrena, «*el último de los Versos puestos por mí sobre la expedición de los bascongados a Marruecos*» esaten baitu, beste bertso-saillik ere bazuala gai onetzaz. Ta bearbada liburu ontan izango da, zein dan esaten ez badakigu ere.

Irugarrena, amairu bertso inprentatu zirala lenengo, eta gero beste iru erantsi. Gure ber-

1. *Boletín de la R. S. V. de Amigos del País*, X, 1954, 292-3 orri-aldeetan.

tso-paperak amasei ditu ordea. Osatua dago, beraz.

Beste iru toki auctan, bertsoak aldaketa batzuek badituzte eta bertsoen ondoren ipiñiko ditugu.

1/ Guazan, guazan, mutillak,
guazan Afrika'ra,
moruakaz indarrak
antxe neurtutera;
agertu biar dogu
Marruekos aldian
antxiñako euskaldunen
seme ete garian.

2/ Gaztela'ko mutillak
moruakaz gerran,
ta euskaldunak geldirik
etxian jan ta edan?
Ez, ez orrelakorik,
biar dogu izan
beti aurrereguak
Afrika'ko gerran.

3/ Ikusten dan orduko
morua aurrian,
sartu baionetia
bere bularrian;
ta ez barriz gelditu
imiñi artian
danak luze-luzerik
lurraren ganian.

4/ Zelako triskantzia
moruen artian,
iminten bogu oñik
guk ango lurrian...!
Ikusirik bidetan
moro-aldrak illak,
diadar egin sendo:
«*Aurrera, mutillak!*».

5/ Ez iako entzun biar
besterik iñori
berba bakar au baño:
Gerra moruari!
Ta ez baionetia
iñok sartu lekan²,
mororen bat bizirik
dagan artian.

2. *En la vaina. (Egillearen oarra).*

6/ Ez dau biar atzera
iñok begiratu,
ezpada danok antxe
ill edo garaitu.
Milla arraiuetan,
oraingo aldiyan
goitik biar iuagu
Europa guztiyan.

7/ Frantziya'ko zuabuak
betoz Afrika'ra,
ikastera gugandik
gerran egitera.
Vincennes'ko eiztari³
sendo ta errutsubak⁴
gelditu biar iuek
orain baztertubak.

8/ Gure ganian daukaz
sendaro josiya
begiyan ta gogua
gaur mundu guztiyan:
Afrika'ko aldian
zer jazoko ete dan,
asiten bagara gu
moruakaz gerran.

3. *Cazadores. (Egillearen oarra).*

4. *Briosos. (Egillearen oarra).*

9/ Ez gaitian bildurtu,
euskaldun senduak,
bada laster daukaguz
goiturik moruak;
areek baño soldadu
errutsubagorik
sarritan itxi dogu
lurrian etzunik.

10/ Baldin gure artian
badago koldarrik ⁵,
bijua bere etxera
armia itxirik;
ez dogu emen biar
mutil ollokirik,
morua ikusita
bildurtuko danik.

11/ Baña ez da egin biar
gerria gorrotoz,
ezpada mesediak
egiteko asmoz ⁶;
orregaitik goiturik
Afrika'n moruak,
egin biar ditugu
zoriyonekuak.

5. *Cobarde*. (Egillearen oarra).

6. *Con intención*. (Egillearen oarra).

- 12/ Erakutsirik eurai
Jesusen legia,
ta beragaz batera
zeruko bidia,
au egiten badogu
orain moruakaz,
laster ditugu esker
ta eskumunakaz.
- 13/ Denpora gitxi barru
moruak goiturik,
etxeetara gara
arro eta pozik,
geure garaitza andiyak
kontetara etxian,
etxeko ta auzokuai
geure eskaratzian.
- 14/ Zetarako da bada,
neure ama maitia,
ni juatiagaitik
negar egitia?
Laster izango dozu
semia etxian.
Jaungoikuak nai badau,
umore onian.

15/ Alanbere ez aztu
iñoz bere nigaz,
bada nik beste ainbeste
egingo dot zugaz;
sarri Jaungoikuari
nigaitik eskatu,
len baño len gagizan
alkarregaz batu.

16/ Agur, Euskalerriya,
baguaz emendik,
etortia uste dogu
garaitzaz beterik,
ementxe biziteko
geure lur maitian,
pozik, gozaro eta
bake ederrian.

ALDAKETAK:

Bizkai'ko Diputazioko liburutegian dagoan eskuz-
idatzitako paperak:

Izenburua: Euskaldunak moruen kontrako gerran
sendatuteko euskerazko bertsuak.

Bertsoen ordena: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 9, 10, 8, 7, 11,
12, 13, 14, 15, 16.

2/7: aurrerenguak beti; 5/1: Ez begiyo besterik;
5/2: entzun gaur iñori; 5/7: mororen bat zutunik; 6/3:
ezpada garianok; 6/7: garai biar juagu; 7/2: laster dira
Afrikan; 7/3: ikasten zubek gandik; 7/4: zelan egin
gerran; 7/6: astin ta errutsubak; 7/7: gelditu biar da-
be; 8/1: Zubekgan imiñirik; 8/2: ta ondo josiyak; 8/3:
bere begiyak daukaz; 8/5: zertzuk Afrika aldian; 8/6:

ikusiko diran; 8/7: asirik euskaldunak; 9/1: Ez euki, ez, bildurrik; 9/3: lastertxu daukazubez; 9/7: itxi dozube sarri; 16/6: geure erri maitian.

* * *

Aita Uriarte'ren bildumak:

4/5: itxirik bazterretan; 5/1: Ez begiyo besterik; 5/2: entzun gaur iñori; 6/7: nagusi izango gaituk; 7/2: balegoz Afrikan; 7/3: ikasteko gugandik; 7/4: zelan egin gerran; 8/7: asten garianian; 9/7: bost bidar itxi dogu; 12/3: nun aurkituko dabeen; 13/3: etxeetara gatoz; 15/7: len baño len gaitzala.

* * *

Irurac-Bat, 1859.XII.1:

Onek iru bertso falta ditu: 5, 7 eta 8'garrena.

Aldaketak, Bizkai'ko Diputazioko paperak dituanak, eta beste bi: 4/3: iminten bogu oña; 13/1: Lau illabete barru.

Erderazko itzulpena ere badakar, ez luzatzearren jartzen ez badegu ere.

Ta, gaiñera, onoko oar au:

«Insertamos con el mayor gusto la siguiente inspirada poesía de uno de nuestros más ilustres literatos vascongados. Los que comprendan sus bellezas ciertamente que las aplaudirán. El autor nos ruega que advirtamos a nuestros lectores que por conservar la fidelidad de la poesía vascongada, de intento ha dejado en la traducción errores de construcción analítica fáciles de comprender».

MARRUEKOS'KO GERRAKUAK

Bertso auek, beren izenburu ta guzti, Aita Uriarte'ren eskuz-idatzitako bildumatik ditugu.

Goien, eskubiko saietsean, onela dio: *Azkue*. Resurrezion Maria Azkue'ren aita da ori, Eusebio Maria (1813-1873), oso bertso-jartzalle ugaria ta egokia.

Aren bertso asko, Aita Uriarte'k bere bilduma orretan kopiatu zituan, eta auek ere bai.

Are geiago: Bonaparte'ri 1859'eko urte artan idatzi zion eskutitz batean, onela esaten dio:

«Los adjuntos versos son composición de D. Eusebio María de Azcue, maestro de náutica en el inmediato pueblo de Mundaca. Estudió Gramática, Filosofía y Teología con grande aprovechamiento: en la guerra pasada sirvió de oficial entre los Carlistas, y luego se casó. Es autor de la canción *Chapel gorriyac, mutil biciyac*, de la reciente Guerra de Marruecos, que la tiene S. A.»¹.

Semeak, Resurrezion Mariak alegia, bere aitaren bertso asko bildu eta 1896 urtean, Bil-

1. *Boletín de la R. S. V. de Amigos del País*, XIII, 1957, 333 orri-aldean.

bao'n, *Parnasorako bidea* deritzan liburu batean, argitara eman zituan. Baiñan onoko auek ez dau-de bilduma orretan; ez dakigu zergatik bazterre-ratu ziran.

Bertso auek ere, emengo mutillak Afrika'ra baiño leenagokoak dira.

*Txapel gorriyak, mutil biziyak,
batera ibilli beti guxtiyak,
basko bandera imiñi artian
Fez'ko minaret gainian.*

1/ Aurrera, euskal mendi-mutillak,
zeuben erriyen ondria,
txapel gorridun mutil abillak,
aurrera beti bidia.

2/ Laguntzen botsu beti osasunak
Tanjér ganera eltzeko,
ai ze mutillak geure euskaldunak
bakotxak amar ilteko!

3/ Zenbat geiago areriyorik
txapel gorriyak pozago,
ez galduteko suan tirorik
ta preso artzeco geiago.

- 4/ Mauru artian kristiñau txarrak
dagoz Afrika'n ugari ²;
mauru fiñari emon amarrak,
balak kristiñau txarrari.
- 5/ Ez eizu euki, euskaldun onak,
gerran ilteko penarik,
eriyotzia zor dau gizonak
egon ez arren gerrarik.
- 6/ Galtzen dabenak suan biziya,
jausi zerura begira;
animosua ta bildurtiya
kanpuan ezagun dira.
- 7/ Mutil bakotxak ekarriko dau
mauru bat biyotz biguna,
izan deitian gero kristiñau
euskaldun geure laguna.

2. Alegia, beren kristau fedea ukatu ta an bizi ziranak. *Renegados*, erderaz.

«BIBA ESPAÑOL ETA O'DONNELL'EN TROPA...»

Sei bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zaren bertso-bildumatik ditugu.

Bilduma orretan izenbururik ez dute; orain or goien dutena, lenengo bertsoetik artu ta erantsia da.

Aita Atanasio Mokoroa'k 1932 urtean bialduak dira. Noren aotik jaso zituan, onela adierazten du:

«Bera'ko Zigardi deritzaion eta berez Arraioz'koa zan amautxi Amorena'r Estefania andreagandik artuak, agian utsune batzuekin, 88 urte izanik antzi xamarrek zeuzkalako».

Aita Mokoroa'k ez du esaten noiz jaso zizkion. Baiñan 1932 urtean jasota ere, amabost bat urteko neska gaztea izango zan Estefania Amorena andre ori, gerra ura piztu zanean. Alegia, bertsozik buruz ikasteko adinik onena. Bertsozaren batek bertso auek jarriko zituan eta berak ikasi; eta amona xaarra zalarik, guziak bearbada ez, baiñan banaka batzuk beintzat buruan eduki oraindik ere...

Lenengo bertsoan esaten denez, O'Donnell

Tetuan'en sartua da. Leen esan bezela, ori 1860.II.6'an gertatu zan. Arrezkerozko bertsoak, beraz.

Bigarren bertsoak onela dio:

Lau ogei kañonazo
ta zenbait geiago
utzi ta igesi joan
dela kazetan dago...

Kañonazo esan bearrean, *kañoi* esan bear-ko luke, seguru aski. Alarcón'ek, bere *Diario de un testigo de la guerra de Africa* liburuan, onela baitio:

«A propósito de pólvora: pasan de setenta quintales los que hasta ahora se han encontrado en *Tetuán*, así como unos dos mil proyectiles de diferentes calibres y setenta y ocho cañones y morteros, casi todos antiquísimos... Cada una de estas piezas tiene una inscripción que indica su procedencia. Las hay regaladas a los Emperadores de Marruecos por varios Soberanos de Europa, así del Mediodía como del apartado Norte. Las hay también apresadas en las famosas piraterías de los antiguos Tetuanés. Las hay, por último, (y éstas han sido las que más me han interesado), tomadas a los portugueses en el llano de Alcazarkibir el día de la rota del heroico Don Sebastián».

Ta kañoi oiek utzi ta igesi joana dan ori, Muley-el-abbas moroen buruzagia izango da.

Laugarren bertsoa onela idatzia zegoan:

Zabal eta Etxuari,
Koste, Solano,
Brindarius ere
badigu oraño...

Olaxe esango zuan Bera'ko amona orrek eta Aita Mokoroa'k ere ala idatzi. Baiñan gerra artako españitar jeneral batzuen izenak dira: Zabala, Etxague, Ros de Olano, Prim eta Ríos. Ta bertsoa zuzendu egin degu.

Lenengo begiratuan, bertso auk zortziko txikiak dirala ematen du. Baiñan gero, arretaz irakurri ezker eta are geiago kantatzen bada, beste bertso-mota bat dala ikusten da.

Izan ere, bostgarren eta seigarren lerroak puntu bana dute eta bostna silabakoak dira. Ta zortzigarren lerroa ere, geienetan beintzat, bost silabakoa da.

Olako bertso-motarik ez degu uste egundaiño eskuratu degunik. Bertso edo aapaldi berria, beraz.

Zorionez, doñua ere badegu. Bertso-mota berriak doñua ere guztiz berezia eskatzen baitu, beste edozein doñu jasota baño geiago poztu giñan noski. Aita Donosti zanaren paperetan arkitu degu, eskuz idatzita eta bertso bakarra, emengo lendabizikoa, aldaketarik gabe. Non eta nori jaso duan, onela adierazten du Aita Donostik: «*Copiado a Miguel Esteban Kortari de "Inda"*».

Ona, beraz, emen, lenengo doñua eta ondo-
ren bertsoak.



1/ Biba español eta
O'Donnell'en tropa,
Tetuan'en sartu da
Marrukuen kontra;
egin du fuerza,
atake gaitza,
nausi bitorioso
gelditu baita.

- 2/ Lau ogei kañonazo
ta zenbait geiago
utzi ta igesi joan
dela kazetan dago,
baita lijero
tropa entero,
etzuten olako
pagurik espero.
- 3/ Emengo tropak sano
ta ongi badire,
intentzio firmian
joanak dire;
Jinkoak bide
ematen badere,
moruak españolez
aseko dire.
- 4/ Zabala ta Etxague,
Ros de Olano,
Prim da Ríos ere
badigu oraño;
firme ta sano
daude oraño,
naiago det iltzia
kobarde baño.

5/ Lenbiziko asitzen
da infanteria,
beriala prest dago
kaballeria;
artilleria
izigarria,
arek ematen debe
ikareria.

6/ Txoke gogorak zaizkit
oriekin neri,
il ta eriak zenbat
diren ez dakit ori;
urrikalgarri,
otoitz egin bedi,
illekin arimak
zerura daitezen ¹.

1. Lerro au ez da onela izango, dagoan bezala
punturako gaizki baidator.

«MORERIRA JUAN DA...»

Orain arteko bertsoak abertzale suak eragiñak ziran; baiñan, geien-geienak Afrika'ra gabe etxean gelditzen ziranak jarriak.

Onoko auetan, berriz, ez degu olako surik eta garrik arkituko; baiñan etxea utzi eta Afrika'ra dijoan mutil batek paratuak dira. Berak esango digu zergatik eta nola ortaratu dan.

Bertso auek ere paperetan emango ziran argitara. Baiñan, damurik, olakorik ez degu iñondik eskuetaratu. Bearbada, bertsorik geiago ere izango zan; erriaren aotik-eta bildu ditugunak, amabost dira.

Baiñan ez degu emale bakarra izan; bost-edo izan dira. Batek sei bertso eman, beste batek bi, ta orrela.

Orregatik, emale bakoitzetik au edo ura artuaz, bertsoak osatzen aritu gera, eta, esan bezela, amabosteraño iritxi.

Emale oiek zein diran eta bakoitzak zer eman digun, bertsoen ondoren ipiñiko degu; baita ere guk osatutako eraren aldean bakoitzak dituan aldaketak.

Emale oiek etziguten noski izenbururik eman. Goiko ori, gerok amairugarren bertsoetik artu ta erantsia da, orixe baita bertso guzietan ezagunena.

Lenengo bertsoan bi etxe-izen aitatzen dira: Aundiberri eta Birakutz. Zizurkil'ko bi baserri dira oiek, gaur egunean Aundiberri ori ustua eta erdi desegina bada ere.

Ta entzun ere egin izan degu, bertso auek jarri edo jarrarazi zituan mutilla Zizurkil'koa zala eta bertako gertaera dala.

Bertsoak jarri edo jarrarazi esan degu; baiñan, seguru aski, bigarrena izango da. Oitura ala baitzan: inork bertsoari nai bazuan, bertsolari batengana joaten zan, bere gertaera adierazi, urrengo batean bertsoak jaso, pagatu eta inprentaren batean argitaratu.

Ori orrela eta mutilla Zizurkil'koa izanik, Otañotarrengana joango zala bururatuko zaio edozeini. Baiñan ez da ola izango. Jose Bernardo (1842-1912) eta Pedro Mari (1857-1910) gaztetxoak ziran orretarako. Ta aien aita ta aitona, Errekalde zaarra alegia, ez degu inoiz entzun bertsoari paperetan jartzen jarduten zanik.

Erbestera joango zan, beraz, mutilla. Lenengo auzo-errian, Asteasu'n, Pello Errota (1840-1919) zeukan; baiñan au ere gaztetxoa. Agustín Zakarra ere bertan zeukan, eta au obeki izan diteke, beraren bizi-mugak 1816-1886 baitira. Ta urrutirago joanik, Altzo'n Imaz (1811-1893)

zuan, eta Errenteria'n Xenpelar (1835-1869), biak ere bertso-jartzalle ugari ta egokiak.

Bertso aukerak ongi ulertuko badira, zenbait argibide eman bearko degu.

Leen esan bezela, Gipuzkoa'ko Diputazioak *kinta* deitu zuan: 1136 mutil bear ziran ta lenengo *voluntarioak* artu, eta, falta ziranak osatu bearrez, zotz egin, nor joango zan aukeratzeko.

Zizurkil'ko mutil orren gurasoak ere, zazpi-garren bertsoak dionez, «joan dan gerratean», alegia karlista ta liberalen arteko lendabizikoan (1833-1839), bide ori bera artu zuten, «eme-zortzi urtean allegatu baño len» ezkondurik. Ta mutillak «ori ere beretzat kaltean etorri dala» dio; lan ori geroxeago egin izan bazuten, mutilla ere geroxeago jaio eta Afrika'ko gerrak gazte-xeago arrapatuko zualako.

Berak ere orixe egin nai izan zuan, «eta begiz joa ere bazuan neskatz bat auzoan». Baiñan etxeakoak, «errain diruduna» bear zutela-ta, etzuten semearen andregai ori onartu. Are geiago: etxerako-edo seme ori zan, eta orduan alaba aukeratu zuten. Beintzat, mutil ori ezin ezkondurik gelditu zan etxeakoen kulpaz, eta suertean katigu erori eta gerrara joan bear.

Beste iges-bide bat ere ba omen zan: dirua: Orrenbeste pagatu eta ordezkoren bat joaten omen zan. Ordezko ori, uste degunez, batzuetan mutillak berak eta bestetan gobernuak-edo billatzen zuan.

Ain zuzen, amaika eta amabigarren bertsoak diru-aitamena badute: zortzireun erreal. Orixe ote zan soldaduzkatik libratzeko orduan pagatu bear zana? Gutxitxo dirudi. Baiñan ala ere «aik pagatzeko, gabe zeguan *Artua*» esaten digu amai-kagarren bertsoak. *Artua*, mutillaren izengoitia omen zan.

Ezkonduak ez omen ziran suerterako sartzen. Ain zuzen, Tolosa'ko batzar berezian artutako erabaki batek onela dio:

«Declarar que los mozos de esta Provincia que hoy se hallen solteros y comprendidos en la edad de 20 á 30 años cumplidos, estén sugetos á las consecuencias de la preinserta base 3.^a de las adoptadas por la conferencia de las tres hermanas...».

Ta gerra artan ez-ezik, bestetan ere berdin zan. Orregatik, gerra-usaia aditzean, mutil asko nexka baten billa asten ziran, elizako buelta lenbailen egiteko.

Gure adierazpen auek ez ditzala iñork eban-jelioaren pare egin. Entzun izan degun bezela mintzatu gera. Esandakoak bear bezela oiñarritzeko, liburuetan eta abar azterketa luze bat egin bearko litzake, eta orain beintzat ez degu orretarako astirik.

Ta itzaurre luze au bukatzeko, bertso auek zein doñutan kantatzen diran. Zizurkil'en jaio eta Aduna'ko Sonola'n bizi zan Juana Tejeria zanak, *Bautista Bazterretxe*'ren doñuan kantatzen zituan, doñu orrek eskatzen duanez iruga-

rren eta zazpigarren lerroak bi aldiz esanaz. Ta, ain zuzen, bertso auk jaso ditugun beste iru tokitan, lerro oien saietsean *bis* idatzirik dago. Alegia, bi aldiz kantatu bear dirala. Beraz, toki askotan beintzat, doñu orretan kantatuko ziran bertso auk. Ta «toki askotan» esan det, nere ustez beñepein, oso bertso ezagunak izan zira-lako garai batean.

1/ Milla zortzireun eta
berroi ta emeretzi,
nere pasadizua
nai det adierazi;
Aundiberri'n jaio ta
Birakutz'en azi,
deseredatutzia
al nuen merezi?

2/ Zazpi senide bizi,
iru illak amar,
jendiak egingo du
gugatikan marmar;
bengantza zabal eta
kariñua melar,
zertako egiten dute
miñik gabe negar?

- 3/ Begiz jua banuan
neskatx bat auzuan,
biartutzen banintzan
alako kasuan;
gertatu geranian
oraingo lazuan,
aren paltarik etzan,
etorri nai zuan.
- 4/ Neronek esan niyon
sukaldean amari,
konpondu al gentzakian
nolabait lan ori:
«Portziyo bat bekarte
bazarrian neri,
antxen saiaturko naiz
bizi al baledi!
- 5/ Ekartzen baldin badet
neonek nai dedana,
biok egingo degu
gogotikan lana». Orduan ikusi det
kopeta illuna:
«Seme, guk bear degu
errain diruduna».

6/ «Diruz ez du izango
askok aña dobloi,
bañan ekarriko du
etziteko ainbat oi;
biok jarriko gera
neskame ta morroi».
Nik miñ artzen nuben ta
amak esan dit oi.

7/ «Soldadu ez juagatik
listan suertian,
beok ezkondu ziran
juan dan gerratian,
allegatu bañan len
emezortzi urtian;
Ori ere etorri da
neretzat kaltian».

8/ Testiguen aurrian
arturik labana,
sartu biar dirala
etorri zait ama;
orra zer kariñua
seme batengana,
au da despreziyua
ikusi dedana!

9/ Alaba ezkontzeko
gutziz dira bero,
orain kontentu dira,
ez dakigu gero;
arreba jarri zaigu
.....
.....
.....

10/ Sui-gai orrek omen
du aundiya boltsa,
kanpuetan beñepein
ala dago otsa;
neri eman dirate
pena eta lotsa,
argatikan artzen det ¹
buruzpide motza.

11/ Zortzireun errial zan
nere repartua,
aik pagatzeko gabe
zeguan *Artua*;
pobrezan bizitzeko
mundura sortua,
argatik nago orain
soldadu sartua.

1. *Det* ori guk erantsia.

12/ Zortzireun errial
ez pagatzekotan,
soldadu nua sinplezan
lastima asko ontan;
konpondu ez geralako
sukaldeko juntan,
biziya utzi nezake
nik armaren puntan.

13/ Morerira jua da
gerran biet asi,
enpleo txarrerako
ez ninduten azi.
Zer egingo det bada?
Il artian bizi!
Adios, aita ta ama
ta Mikela Iñazi!

14/ Adios, nere aita,
agur, nere ama,
eskergabetasunak
soldadu narama;
adios bada, nere
biotzeko dama,
bizi banaiz bueltan
banator zugana.

15/ Fuera Marruekuak,
 biba erregiña!
 Zure alde egingo det
 nik nere alegiña;
 artarako dadukat
 botua egiña,
 sikiera suertian
 biziko bagiña!

Bertso aukerak nun jaso ditugun eta toki bakoitzean zer jaso degun:

Bilbao'ko *Euzkadi* egunerokoa, 1933.VII.29'an: Oar batean onela dio: «*Kirol*'ek Alkiza'ko Maria Larrarte'ri —58 urte— artuak». Ta 1, 11, 2, 5, 6, 14 eta 15'garren bertsoak ditu.

Aldaketak: 5/1: Neri uzten badirate; 5/2: ekartzen nai dedana; 6/2: zenbaitek aña dobloi; 11/1: Zazpi-reun errial zan; 11/2: nere errepartua; 11/3: pagatu-tzeko gabe; 11/5: promesan bizitzeko; 11/6: munduan sortua; 14/7: banator zeugana.

* * *

Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren bertso-bilduman, lapitzez idatzitako orri batean, zenbait bertso osorik: 7, 5, 6 eta 10'garrena; eta 1, 2, 9, 13 eta 14'garrena, puska falta dutela.

Aldaketak: 2/1 iru senide illak; 5/5: Gero ikusi nuben; 13/1: Moreriyara jua da; 13/5: nere bizimoduba; 14/5: adiyos nere maite.

* * *

Zizurkil'en jaio eta Aduna'ko Sonola'n bizi zan Juana Tejeria zanaren aotik, sei bertso jaso genituan: 3, 11, 12, 4, 8 eta 13'garrena.

Aldaketak: 8/6: daduka nigana; 11/7: lan orregatik nago; 13/5: egingo dedana da. Baiñan bertso au bost puntukoa egiten zuan, bukaeran onoko au erantsiaz:

ni banijua eta
 beok ondo bizi.

Juana Tejeria onek esan zigunez, bere ama zanari ikasiak zituan bertso oiek, eta amaren gazte-denboran jarriak omen ziran. Berari entzun nion, baita ere, mutilla Zizurkil'koa zala, bertako gertaera zala eta aren izengoitia *Artua* zala.

* * *

Anuario de Eusko-Folklore'n, 1933'an, 86 orrialdean, 13 eta 14'garren bertsoak arkitu ditugu.

Aldaketak: 13/2: sutan bear dut asi; 13/5: zer egingo degu ba? 14/1: Adios aita eta; 14/2: agur, berriez, ama; 14/5: adios, maite nere.

* * *

Irun'en jaio eta Plazentzia'n bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren bertso-bilduman, eta bai jaun orrek berak *Aitzol* zanari bialduak, 8, 13 eta 14'garren bertsoak.

Aldaketak: 8/7: ai au despreziyua; 13/2: gerran biar dut asi; 13/4: ez ginduzen azi; 13/5: zer egingo det baña?; 14/5: agur nere biotzeko; 14/6: damatxo lazta-na; 14/8: or nator zugana.

AFRIKA

Orain arteko bertso-saillak, emengo mutillak Afrika'ra baiño leenagokoak dira; arako prestatzen ari ziranekoak.

Urrena azalduko ditugunak, berriz, euskal *terzioak* ara iritxi ondorengoak dira, batzuek an eta besteak emen jarriak, baiñan danak ere ango gertaera guzien berri ematen digutenak.

Orregatik, sail auek ondo ulertuko badira, guk ere gertaera oiek adierazi bearko ditugu, eta atal berezi bat egingo degu orretarako.

Maiz xamar besteren itzak aitatu bearko ditugu; eta erderaz baitaude eta gure artean izkera ori ulertuko ez duanik gaur ez baitago, bere ortan utziko ditugu.

Naiko atal luzea izango da. Orregatik, zerbait ere arindu eta alaitu dezagun, zatika ezarriko degu. Lenengo zatia, itxasoan izan zituzten lanak.

ITXASOAN

Araba'ko *terzioak*, Gazteiz'tik abiatzean, mundu bat jende omen zuan inguruan. Ta danak oiuka, musika-bandak soñuka, erriko kan-

pai guziak bueltaka... Mutillak onela kantatzen omen zuten:

*Ay, ay, ay, marroquí
que vamos contra ti...*

Aien bidea auxe izan omen zan: San Franzisko'ko aldapa, Cuchillería kalea, Los Arquillos, Bilbao'ko plaza... Ilbeltzaren 10'garrena zan ¹.

Oiñez etorri ziran itxas-bazterreraíño. Franzisko Juan de Ayala zuten beren buruzagi, eta, Arlaban'go gaiñera iritxitakoan, ango baserri bateko leiotik itz batzuek egin zizkien jaun orrek mutillai. Gero, aurrera jarraitu zuten ².

Tolosa'n ziran mutillak, Ilbeltzaren 11'an artu zuten Donosti'ra joateko agindua. Gauzak prestatu eta biaramon-goizean abitu ziran. *Terzioaren* banda ez-ezik, errikoa ere lagun izan zuten bidean.

Arratsaldeko seiretan iritxi ziran Donosti'ra. Erriko bandak *Ai, ai, ai, mutillak* joaz egin zien ongi etorria. Beste banda bat ere bazan, eta arek *Himno de Riego* deritzana joaz agurtu zituan.

Terzioak eramateko itxasontziak, onoko auek omen ziran: *Hércules, Empereur, Shawld, San Antonio*. Oiek, Pasai'tik abiatzeko. Bilbao'tik, berriz, *Pelayo* izeneko bat.

1. *Irurac-Bat*, 1860.I.12.

2. Jesús de Izarra: «Contribución de sangre», *Euskal-erriaren alde*, 1925. XV.

Oso egualdi txarra omen zegoan eta itxasoa ere asarre. Orregatik, zai egon bear izan zuten mutillak zenbait egunetan.

Ilbeltzaren 27'an, goizeko zortziretan, Donosti'ko plazan bildu eta Pasai aldera abiatu zan bigarren *terzioa*, gipuzkoarrena alegia. Bide guzian euria izan zuten. Lenengoa, arabarrena, Errenteri'tik joan omen zan. Laugarrenaren erdia ere, erdi ori gipuzkoarrak osatzen baitzuten, Pasai'ra bildu zan.

Arratsaldeko iruretan atera omen zan Pasai'tik *Empereur* itxasontzia, lenengo *terzioa* osorik eta bigarrenaren erdia zeramazkiala; milla ta berreun mutil, danetara. Andik ordu erdira atera zan *Hércules* zeritzana.

Egun berean atera ziran Bilbao'tik irugarren *terzioa*, bizkaitarrena, eta laugarrenaren erdia, au ere bizkaitarrez osaturik baitzegoan. Deusto'tik eta Olabeaga'tik barrena, ujujuka eta santso-ka igaro omen ziran mutil aiek³.

Itxasoan larri xamar ibili ziran danak ere. Onela esaten du *Euskal-Erria* aldizkarian, 1905 urtean, *Nuestros Tercios en Africa* izenburua-ekin eta firmarik gabe agertu zan idazlan batek:

«El tercio guipuzcoano llegó á Santander el día 28, y el primero, alabés, y el tercero y el cuarto, bizcaíno y guipuzcoano, que salieron el 17 de Bilbao, se embarcaron en San Sebastián, donde estu-

3. Argibide auek danak, *Irurac-Bat* periodikotik, egun aietako zenbakietatik.

vieron dos semanas esperando los vapores que debían conducirlos, y detenidos además por los horribos temporales que llenaron de desolación la costa de Cantabria.

Cuando se creyó que aquellos iban á ceder, y á pesar de que los prácticos se negaban á darse á la mar, salieron de Pasajes.

Los buques eran de poco porte y llevaban por una equivocación deplorable un cargamento que debieron haber descargado en Ceuta antes de ir á buscar los tercios.

Apenas pasaron de la boca del puerto, se desencadenó con más fuerza el vendaval, acompañado de grandes aguaceros y de furioso oleaje.

Fueron empujados así hasta la barra de Bayona, que tan triste celebridad tiene entre la gente de mar.

Entonces, por uno de esos impulsos de los que se ven en trance tan apurado, se dió la omnímota dirección al práctico de Pasajes.

Esta fué la gran fortuna de la expedición.

Entre tanto, los 1.800 voluntarios que iban sobre cubierta, sufrían tan duro aprendizaje, no con resignación, sino con alegría.

El dignísimo general Latorre prorrumpió en lágrimas de admiración y de piedad al contemplar aquel heroico sufrimiento, próximos á un fin funesto.

Pero al fin, después de tantos padecimientos y peligros, lograron desembarcar en Cádiz, desde donde pasaron á la isla de San Fernando para completar su instrucción.»

Itxasontziak, lenengo, Santander'era joan ziran. Baiñan emendik etziran danak egun berean atera; orregatik, ezta ere San Fernando'ra danak batera iritxi.

SAN FERNANDO'N

Esan bezela, San Fernando orretan *instruzioa* ikasten jardun ziran emengo mutillak. San Fernando ori, Cádiz inguruan dago.

Egun batez, Otsaillaren 14'an, inguru artan bizi ziran euskaldun aundiki batzuek azaldu ziran, bixita-edo egitera etorriak: Uhagon, Murietta, Ibarra, Alaba, Basagoiti, Gerriko, Marron, Fernández Aldekoa ta beste.

Latorre jeneralak ala agindurik, *terzioak formatu* egin ziran, eta jaun aiek oso gustaturik gelditu diran mutil aietaz.

Jose Maria Ibarra'k, onelatsu esan omen zion Latorre'ri:

—Afrika'n moroen aurka burrukarik egiten badezute, zauriturik eroriko diran guzientzat nik *hospital* bat jarriko det Sevilla'n, eta gastu guziak nere kontu.

Ta esan bezela egin ere. Ibarra'k, egun gutxiren buruan, *hospitala* antolatuta zeukan: bost sala eta berreun oe soldaduentzat; beste sala bat, zenbait oekin, buruzagientzat; eta beste gela batzuek eta abar, mojentzat eta danentzat.

AFRIKA'RA

Afrika'ra, Otsaillaren 27'an iritxi ziran, batzuek diotenez; beste batzuek, 28'an esaten dute.

Nola iritxi ziran eta leendik an ziran soldaduak zer arrera egin zieten, onela adierazten du

leen ere aitatua degun Germond de Lavigne frantzes idazleak:

«Por fin, los 3.000 hombres, completamente armados y equipados, llegaron al fondeadero del Rio Martin el 28 de Febrero. Cuando desembarcaron, el ejército español oyó hurras extraños, un conjunto de gritos discordantes que solo pechos bascongados pueden lanzar. Los pobres *mutillak*, que habían tenido una travesía muy mala desde Santander á Cádiz, saludaban á su manera la tierra africana y juraban no volver á sus montañas sino á pié enjuto.

En seguida de llegar, el general Latorre montó á caballo y seguido de una escolta de 50 granaderos salió al trote para el cuartel general. Sus 50 hombres, vestidos de un modo pintoresco y llevando la boina tradicional iban *al paso bascongado*, es decir, á la carrera, y contestaban en una lengua desconocida para el ejército á las preguntas que se les dirigian.

Aquello fué un verdadero acontecimiento. La tropa acudia á verlos diciendo: «Son los bascongados» y aclamándolos con entusiasmo. Así llegaron, sin dejar de correr, hasta la tienda del general en jefe, quien salió á verlos y les prometió que al día siguiente pasaría revista á los tercios».

Ta *Euskal-Erria* aldizkarian, 1905'an, *Nuestros Tercios en Africa* izenburuarekin agertutako idazlanean, onela esaten da:

«Desde Cádiz pasó al campamento el general Latorre, jefe de los tercios bascongados, para recibir órdenes del duque de Tetuán.

Le acompañaban 50 granaderos, y después de haber desembarcado, aquel marchaba á trote sobre

su caballo, seguido al mismo paso por los ágiles granaderos.

Al verlos atravesar por el campamento los soldados del ejército, desde luego llamaron su atención el general y su escolta, y como esta hablara en bascuence, no supieron en los primeros instantes darse cuenta de donde procedían.

Un oficial del ejército que los oyó, y que debía ser bascongado, descubrió el origen.

En el acto los soldados empezaron á victorearles, y entre las aclamaciones de multitud de voces, llegaron á la estancia del general.

Concluída la misión del general Latorre, montó a caballo, tomó el trote, siguieron al mismo agitado paso los bascongados hasta el punto donde debían embarcarse, y volvieron los soldados del ejército á vitorear á los hijos de las montañas bascas que debían compartir con ellos dentro de breves días sus glorias y penalidades».

Urrena, mutil guziak legorreratu eta revista izan omen zuten. Onela esaten da toki berean:

«Determinada la traslación de los tercios á Tetuán, se embarcaron en San Fernando á bordo de los vapores *Torino, Cavour, Duero, Provence* y *Wifredo*, y como hemos dicho, desembarcaron el 28 en la Aduana de Tetuán, donde acamparon, quedando á su cargo las comunicaciones del mar con la plaza, y pasando á reforzar el campamento la división de reserva mandada por el general Mackenna, que era la que ocupaba aquel punto.

El general García presenció la llegada de uno de los tercios, y su música, al hacer los honores al jefe de Estado Mayor, tocó su favorito *mutila*».

Alegia, *Ai, ai, ai, mutilla*, garai artan Eus-

kalerrian ain ezaguna zan kanta. Onela jarraitzen du:

«El mismo día, y á la hora anunciada, se verificó la revista que el general en jefe debía pasar á los tercios bascongados.

Media hora antes se hizo en debida forma el relevo de las divisiones.

La de reserva formó por batallones en masa con la espalda á la Aduana, y á su frente, en igual disposición, se colocaron los cuatro tercios.

El cuerpo del general Mackenna desfiló en columna por todo el frente de los bascongados, batiendo marcha sus respectivas bandas.

El general Latorre se colocó con su Estado Mayor en el intervalo del tercer y cuarto tercio durante el relevo y el desfile.

El aspecto que presentaban aquellas cuatro masas de hombres, en general de elevada estatura, con boina encarnada y su traje nuevo, producía muy buen efecto.

De lejos parecía un vasto cuadrilongo de amapolas.

Los tercios tenían, excepto uno, su charanga.

El primero llevaba banderines azules, el segundo y tercero blancos, todos con las armas de su provincia y el número del tercio, y el cuarto tenía los suyos mitad encarnados y la otra mitad blancos.

Apenas había transcurrido un cuarto de hora, se oyó que la división Mackenna hacía los honores al general en jefe, á quien encontraría en el camino.

Al poco rato el duque de Tetuán llegó a la altura del primer tercio, donde fue recibido por el general Latorre, y acto continuo, al toque de la marcha real, revistó á los cuatro tercios, dando la

vuelta alrededor de cada uno de ellos y mirando detenidamente las compañías desde uno de sus flancos.

Concluída la revista, los bascongados desfilaron á cuatro de fondo por delante del general en jefe, quien dijo al general Latorre que sus soldados se fogueasen enseguida y tirasen al blanco».

Jeneral buruzagi ori, dakigunez, Leopoldo O'Donnell zan. Ta une artan gogoratuko zitzaion noski, mutil aiek bezela, euskaldunak zirala, ogei ta bi urtez leenago, karlisten lenengo gerrotean, 1837. IX.14'an, Andoaín'en jipoia eman ziotenak.

Ta mutil aietakoren bati ere, ain ezagunak baitziran garai artan Euskalerrian, bururatuko zitzaizkion orduan atera ziran bertsoak:

O'Donnell jenerala
zutela agintzen,
panparroi or zebiltzen
etxeak erretzen...

Alarcón'ek ere aitatzen du euskaldunen etorrera, bere *Diario de un testigo de la guerra de Africa* liburuan:

«A propósito de tropas: los Tercios Vascongados llegaron, por fin, anteayer, 27.

Ya sabréis que los manda el general D. Carlos María Latorre. Compónese de gente hermosa, alta y robusta, como lo es siempre esta raza privilegiada. Del clásico traje de su país sólo han conservado la boina, la cual basta para darles no sé

qué aire antiguo y romanesco que predispone el ánimo en su favor...

El General en Jefe los revistó ayer, 28, y hallándolos, naturalmente, faltos de instrucción, ha mandado que, por ahora, guarnezcan la Aduana y hagan el ejercicio en la llanura de *Guad-el-Jelú...*».

BANDERAK

O'Donnell'ek agindu bezela, antxe gelditu ziran gerrarako trebatzen, Martxoaren 7'garrena arte. Egun orretan festa aundia izan zuten. Onela dio *Euskal-Erria* aldizkarian 1905'an agertutako idazlan orrek:

«El día 7 de Marzo del mismo año se celebró en el campamento el acto solemne de la bendición y entrega de las banderas á los tercios bascongados.

A las doce en punto de la mañana, los tercios, formados á cuatro de fondo, se dirigieron á la llanura que se extiende enfrente de Tetuán, donde, en el centro de una tienda de campaña, se alzaba un pequeño altar destinado al objeto.

Las tropas, ocupando el frente en columna cerrada, se hallaban distribuídas del modo siguiente:

A la derecha del altar, los cuatro abanderados descansando sobre sus banderas que tenían cubiertas, y á sus espaldas una fuerza de granaderos en ala.

A la izquierda otros tantos hombres, y delante el general y demás jefes y oficiales francos de servicio.

Al frente otra fuerza igual de granaderos cerrando el cuadro, á los cuales seguía toda la fuerza en el orden indicado.

Después se descubrieron las banderas y acto continuo se procedió á su bendición, y concluída la ceremonia que duró breves minutos, las banderas volvieron á las manos de sus poseedores, y entonces el capellán del segundo tercio les dirigió una sentida alocución.

Finalizada la misa, una mitad de cada tercio, con la música á la cabeza, pasó á recoger la bandera, hasta dejarla entre las filas en su lugar correspondiente.

Una vez en sus puestos todos, cada tercio emprendió su marcha en columna cerrada al sitio que se había destinado para hacerse las descargas de ordenanzas.

Puestos en orden de batalla y con el frente á la extensa planicie que se extiende hasta la cordillera de Sierra Bullones, se hicieron las salvas con bastante precisión y orden, pasándose en el acto á la jura de las respectivas banderas.

Al frente cada abanderado de su tercio, los segundos comandantes, alzando la voz, les dirigieron estas palabras:

—¿Jurais á Dios y prometeis á la reina seguir constantemente sus banderas hasta derramar la última gota de vuestra sangre y no abandonar al que os esté mandando en acción de guerra ó disposición para ella?

A lo cual contestaron:

—Sí, juramos.

Añadiendo los capellanes estas otras:

—En cumplimiento de mi ministerio, ruego á Dios que si así lo hiciéseis, os lo premie, y si no, os lo demande.

Con lo cual se dió por terminada la ceremonia, dirigiéndose la fuerza al campamento.

El mismo día, el general D. Carlos María de Latorre, comandante general de dichos tercios, dirigió á los voluntarios la siguiente alocución:

—Bascongados: Sobre el campo de batalla, en que el día 4 de Febrero el ejército nuestro hermano sostuvo heroicamente el pabellón español, y escudándoos desde el cielo los que entonces sucumbieron para vivir siempre en la memoria de la patria, habeis jurado vuestras banderas.

A su sombra están vuestra honra y el renombre de las provincias que os han enviado aquí á representarlas, y á que compartais vuestras fatigas y gloria con los que, más dichosos que nosotros, inauguraron la campaña.

Esta sola idea, y recomendaros la disciplina y unión en el combate, y que todos procuremos secundar y cumplir exactamente las órdenes de nuestro digno general en jefe, son los deberes que hoy os recuerda vuestro comandante general, *Carlos María de Latorre.*»

Galdera bat bururatzen zaigu guri orain: gisa orretako itzaldi bat, eta gaiñera erderaz, zenbateraiño ulertuko zuten mutil aiek? Baiñan nagusiaren itz aietaz jabetu ala ez, moroen aurre-ra joatekoa agindua noiz izango zuten zai gelditu ziran.

WAD-RAS

Leen esan bezela, Tetuan artu ondoren, moroak eta españolak artu-emanetan asi ziran pakea egitearren. Baiñan baldintzetan etziran batera etorri eta berriz ere gerrara jo zuten.

Martxoaren 11'an, Samsa'ko burruka izan zan, eta Martxoaren 23'an, Wad-Ras edo Gualdras'ko burruka, gerra artako gogorrena, latzena eta azkena. Wad-Ras izango da moro-izen jatorra, baiñan bietara esaten zioten españitarrak.

Euskaldunak ere an izan ziran; gerra artan antxe eman zieten moroai arpegi, lenengo eta azkeneko aldiz.

Pedro M. Soraluze'k, *Euskal-Erria* aldizkarian 1913'an, *Wad-Ras, aniversario glorioso para el tercio vasco expedicionario en Marruecos* deritzan idazlanean, onela dio:

«...No necesitamos decir que la reseña imparcial extractada de la batalla de Wad-Ras que publicamos, está basada en datos y antecedentes de origen oficial existentes en el Ministerio de la Guerra, en la Diputación de Guipúzcoa, en el Gobierno Militar de San Sebastián y en el Museo municipal, aparte de papeles particulares de familias del país...

Después de la batalla de Tetuán, ganada en 4 de Febrero de 1860, en la cual tan heroicamente se condujo el comandante del regimiento de León y benemérito hijo de Fuenterrabía, D. Bernardo de Goenaga, a quien, como recompensa oficial, el general en jefe D. Leopoldo O'Donnell regaló las pistolas del general Mina, armas que se conservan hoy en día en el Museo municipal de esta ciudad; tras dicha batalla y fracaso de las primitivas negociaciones de paz, el Ejército español, a las ocho de la mañana del día 23 de Marzo de 1860, empezó a remontar por el valle el curso del Guad-el-Jelú, que conduce al célebre desfiladero del Fondak, por el puente de Buceja, siendo Tánger el objetivo.

Hemos dicho que la jornada de Wad-Ras es particularmente gloriosa para el país vasco, fundando nuestro aserto en que fué el día en que recibió el bautismo de fuego, digna, brillante, heroica y decisivamente, el bizarro tercio vascongado que mandaban los generales D. Carlos de la Torre y D. Rafael Saravia, cuyos retratos igualmente se conservan en el Museo municipal.

El general Ríos, comandante en jefe del Cuerpo de Ejército de reserva, recibió orden de flanquear la marcha por la derecha con cinco batallones de la segunda división, el tercio vasco y los coraceros de Villaviciosa, y se dirigió por los montes de Samsá y Sadino, dejando el primer pueblo a la derecha.

El grueso del Ejército marchaba por el llano, precedido por los ingenieros, que iban tendiendo puentes, llevados en piezas a hombros de camello.

O'Donnell no creyó nunca que por el flanco derecho habría gran resistencia; pero los moros, hábilmente dirigidos por inteligencias europeas, embistieron furiosamente por dicho punto, contando con que por tratarse de tropas bisoñas y que no habían entrado en fuego, como los tercios vascos, fácilmente derrotarían al general Ríos, y corriéndose luego a retaguardia del Ejército español cortarían sus comunicaciones con Tetuán.

Grande fué, pues, la sorpresa de O'Donnell al ver que se generalizaba el fuego de una manera violentísima en su flanco derecho y que masas formidables de moros caían sobre el general Ríos.

Al cabo de una hora, la batalla se hizo general, conociéndose perfectamente que todo el esfuerzo marroquí tendía a arrollar a los heroicos tercios vascongados y a los cazadores de Tarifa, quienes se batían desesperadamente a bayonetazos y culatazos, ganando y perdiendo el terreno sucesivamente.

Al propio tiempo la caballería mora, para distraer al grueso del Ejército, que seguía hacia el Fondak por el llano, lo atacaba briosamente.

En tan críticos momentos, en que no sólo el éxito de la batalla, sino el de la misma campaña de Marruecos, dependía de que los heroicos tercios y cazadores permaneciesen firmes en sus posiciones; en lo más desesperado del combate, cuan-

do ya dichas tropas se hallaban rodeadas, y mezclados moros y cristianos en horrorosa y sangrienta pelea, dispuestos los españoles a sucumbir antes que ceder, llegó oportunamente el brigadier Lesca con el sexto batallón de infantería de Marina y uno del regimiento de Bailén, seguidos de otras fuerzas, y tras nuevas y encarnizadas luchas, más a arma blanca que a tiro limpio, lograron entre todos batir al enemigo.

La batalla empezó a las nueve de la mañana y terminó a las tres de la tarde.

Rechazados los moros por el flanco derecho, reanudóse el combate en el llano por el flanco izquierdo, al embestir de frente y en masa el Ejército español a Muley-el-Abbás. Los moros persistían, no obstante el descalabro de Samsá, con gran furia y heroica tenacidad, en ver de cortar la retirada a Tetuán, y para evitarlo, el general D'Donnell, en tanto que se luchaba frenéticamente sobre el monte Benider y puente de Buceja, dió orden a los tercios vascos que con algunos batallones de línea bajaran de los montes donde tan brillantemente se habían portado y que, formando la segunda línea, protegieran la importantísima comunicación de Tetuán, con orden de resistir hasta el último hombre si los moros volvían a reanudar el ataque por aquel estratégico punto, como era de temer.

Así lo efectuaron, y al divisar el Ejército expedicionario del llano a los tercios vascongados, prorrumpió en aclamaciones por su heroico proceder durante la crítica y peligrosísima mañana de Wad-Ras.

O'Donnell, emocionadísimo y reconocido, felicitó con efusión al general Latorre.

Comprendiendo el califa Muley-el-Abbás que, no obstante sus 45.000 hombres, entre ellos un contingente de feroces riffeños, era imposible resistir a los españoles, a pesar del valor y habilidad

desplegados, inició la retirada, y el ejército de O'Donnell acampó en las posiciones tan sangrientamente ganadas y pronto para proseguir al día siguiente, 24 de Marzo, la marcha sobre Tánger.»

PAKEA

Biamamonean, Martxoaren 24'an, Muley-el-Abbas moroen buruzagiak mandatari bat bialdu zuan, moroak pakea nai zutela esatera eta españitarrak pausorik geiago aurrera egin etzeza ten eskatzera.

O'Donnell'en erantzuna: biaramonean, eguzkiaren irteerarako moroak pake-baldintzak ekartzan ez bazituzten, aurrera gogor jotzeko agindua emango ziela berak soldaduai.

Urrengo goizean, eguzkia atera ta ñor moroetatik ageri ez. Gauzak jaso eta abitzeko prestaketak egiteko agindu zan. Artan ari zirala, Fondak mendi-tartetik zaldizko bat agertu zan eta Muley-el-Abbas bera bederatzietan etorriko zala esan zuan.

Oialezko txabola bat ezarri zuten españitarrak beren kanpamentotik aurreraxeago. Esandako orduan, Muley-el-Abbas an agertu zan, berreun zaldizko lagun zituala. O'Donnell ere urbildu zan, oialezko zera artan sartu ziran, beren izketaldia egin zuten, eta baldintzak onartu eta pakea egin ere bai.

Baldintzak, lengoak berak ziran, bat izan ezik; españitarrak etziran betirako Tetuan erriaz jabe egingo, moroak ogei milloi duro pagatu artean baizik.

Pakea, Apirillaren 26'an Tetuan'en firmatu zan.

España'n etzan pake ori danen gustokoa izan eta batzuek gaizki esaka asi ziran: gerra aundia eta pake txikia izan zirala; aurrera jarraitu bear zala eta eremu aundiagoaz jabetu; *Isabel la Católica*'ren testamentuak ere orixe agintzen zuala...

Baiñan betirako gerra nai izatea zan ori. Ta España'k, gerran jarraitzekotan, illero eun milloi erreal gastatu bear zituan eta lau bat milla mutil galdu.

Alarcón'ek bere *Diario de un testigo de la guerra de Africa* liburuan kontatzen duanez, mo-roetako mandatari batek onela esan omen zien españitarrai bein batez:

«—¡No sueñes, General! Vosotros no poder hacernos la Guerra tres años seguidos, y nosotros poder hacérosla a vosotros durante cuarenta años. Moro estar en su casa y Español en la ajena. La Guerra costar a España mucho dinero... mucho dinero..., y el dinero tener fin, como la vida y todo lo del mundo. Lo que no tener fin es los Moros... ¡Morir unos y venir otros...! ¡Muchos Moros..., muchos... muchos!»

Ta Alarcón orrek berak, ta ori bere kasatik, onela dio beste toki batean:

«¡Porque debemos confesar que la actitud de los Moros ante la invasión española es la misma que adoptamos nosotros con la invasión francesa! ¡Y todo el mundo sabe lo que sucedió entonces

en la Península!... ¡*Medio millón* de Franceses se tragó nuestra tierra en el espacio de seis años!»

Orregatik, kondaira-idazle guziak arrazoia ematen diote O'Donnell jeneralari, pake ura egin zualako.

BERTSO BERRIAK

«PASAIA'TIK IRTEN GIÑAN...»

Urrengo sail au, «*Imp. de Pozo; Reina Regente, 4*» moldiztegian argitara emandako bertso-paper batetik degu. Paper ori, Altza'ko Gazteluene baserrian, Txirrita zanaren illoba dan Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ren eskutik jaso genduan.

Beste argitaraldi bat, bertso-paperetan au ere, «*Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*» moldiztegitik atera zan. Paper au Ormaiztegi'n jaso genduan, Etxaburu baserriko Bizente Mujika'ren eskutik.

Bi paper auk ez dute alkarren artean aldaketarik.

Oi danez, *Bertso Berriak* beste izenbururik ez du sail onek paper oietan. Bigarrengo ori, gerok orain erantsia da, lenengo bertsoetik artuta.

Egillearen izenik ez da esaten; baiñan, du-darik gabe, gerra artan emendik Afrika'ra joan ziran mutil aietako bat da.

Aurreko atalean esan diranak, aski dira, guk uste, sail ontako bertso-rik geienak ongi ulertzeko. Baiñan iru bertso zerbait argitu bearrak daude oraindik ere.

Irugarren bertsoak onela esaten du:

ingeleza genduen
manduen kriadu.

Zer adierazi nai ote da itz oietan? Bigarren-goan esaten danez, «mandoa» itxasontzia da. Beraz, gutxienez, bertsolaria zijoan baporeko itxasgizonak inglesak zirala esan naiko du. Baiñan ori, ontzia ere inglesa zalako izango zan noski. Ain zuzen, Pasai'ra mutillen billa etorritako bapore bat *Shawld* zeritzan; ta ingles itxura du izen orrek.

Laugarren bertsoan esaten danez, «illaren ogei ta irutik seiera bitarte» Lazaro-eguna egokitu zan, eta mutillak Tanjer artu-asmotan ziran.

Lazaro-eguna, Erramu aurreko igandeari esan oi zaio; erderaz *Domingo de Pasión* deritzaio. Aurreko ostiralean Lazaroren ebanjelioa irakurtzen zalako edo guk ez dakigu zergatik; baiñan orrela deitzen zaio gaur ere. Zenbait erritan, kalbarioak egiten ziran egun orretan. Egun señailea zan beintzat, eta gure bertsolariak Afrika'n ere gogoan zeukan.

Ain zuzen, 1860'eko urte artan, Martxoaren 24'ean egokitu zan Lazaro-eguna. Alegia, Wad-Ras'eko burrukaren biaramonean. Egun orretan, bertsoak esaten duanez, mutillak prest zeuden atakea jo eta Tanjer artzeko. Baiñan, esan degunez, moro mandatari bat etorri zan. Biaramonean, berriz, 25'an, Muley-el-Abbas eta O'Donnell'ek alkarrekin itzegin eta pakea egin zuten.

Beraz, «illaren ogei ta irutik seiera bitarteko» oiek, oso egun garrantzitsuak izan ziran eta orregatik aitatzen ditu bertsolariak.

Bederatzigarren bertsoan, berriz, Wad-Ras'eko ori oso burruka latza izan zala esaten du bertsolariak, eta «orrelakorik eztala pasa Italian».

Italia'n ere, gerra izana zuten 1859 urtean. Alde batetik, austriatarrak, —auek galdu zuten—; eta bestetik, frantzesak eta —artean batu gabe baitzegoan— beren aberria batu nai zuten italitarrak.

Gerra artan ere, burruka latzik izan zan noski. Besteak beste, Magenta (1859.VI.4) eta Solferino (1859.VI.24). «Zorigaitzean ikusi dut nik Solferino'ko hegia!» esango zuan gero, an itxutu zan mutil doakabeak. Pakea, 1859.XI.10'an egin zan.

Baiñan, gure bertsolariarentzat, Italia'koak utsaren urrengo ziran, Afrika'ko Wad-Ras'eko burrukaren aldean. Betikoa: nori berea aundiena iduri...

1/ Pasaia'tik irten giñan
alegrere aldiz,
jendiak aitatzen du
makiña bat aldiz;
iritxi degu Santander,
pasa berriz Cádiz,
eztakigu noiz juango
ote geran berriz.

2/ Mandua jarri zaigu
bodegatik bera;
ipurdiyez atzera,
muturrez aurrera;
ezagutzen genduben
gutxi gora bera,
bizirik gaudenian
gu kontentu gera.

3/ Bertsuak paratzeko
bada zerbait modu:
esplikatu biar det,
Jainkuak nai badu,
nola ibilli geran
bapori ontan gu;
ingelesa genduen
manduen kriadu.

4/ Illaren ogei ta irutik
seiera bitarte,
Lazaro eguna zan
señaladamente,
jarri giñan guztiyok
ariñ eta fuerte,
ez fallatzeko asmuan
Tanjér artu arte.

5/ Kapitanak esan zigun
barkutik aterata:
Aguro armatzeko
a la bayoneta,
«irabazi nai badezue
geroko errenta!»
Aguro isildu zan
moruben arronka.

6/ Barkutik atera eta
lenbiziko lana:
naranja bat banuben,
ura erdi bana;
konfianza aundiya
lagunarengana,
esplikatu biar det
pasatu zaiguna.

7/ Ez gerade juango
onorerik gabe,
moruen terrenuak
guretzako daude;
nola ibilli giñan
arrats artan ere,
geroztik gau eta egun
barku ontan gaude.

- 8/ Morerira juan eta
nola giñan jarri,
zetorren birerikan
guk ere ezin utzi;
berak etorri ziran
moruak lenbizi,
aguro juan ziran
andikan igesi.
- 9/ Etorri ziranian
bigarren aldiyan
jendia larri zeguen
galtzan ipurdiyan;
jenerala an genduen
guztiyon erdiyan,
orrelakorik ezta
pasa Italiyan.
- 10/ Probintziyak badauzka
makina bat gastu,
boluntariyo txarrik
ark bialdu eztu;
goguan artu zagun
ez dediyen aztu:
moruak españolik
ikaratu eztu.

**MORUEN KONBENIOKO
BERTSO BERRIAK,
GUALDRAS'KO BATALLARI
PANTXILLONEK JARRIAK**

Amairu bertso auek, gaur Chicago'ko *New Library*'n dagoan Bonaparte'ren bildumatik ditugu.

Bertso-paper bat da; moldiztegi-izena onela du: «*Reimpreso. Bilbao; imp. de A. Dapon. Ascao, 9. 1860*».

Paper orrek or goiko izenburu ori bera dauka, eta onek bertsolariaren izena ematen digu: Pantxillon.

Obeto esateko, Pantxillon izengoitia izango da noski. Baiñan izen-abizen jatorrak zer zituan, ez degu orain arte iñondik ikasi.

Nongoa zan badakigu ordea. Berak jarritako beste sail batean esaten danez, Durango'koa zan.

Ez dirudi bera ere Afrika'n izan zanik. Ala ere, txetasun asko ematen ditu Wad-Ras'eko burrukaz eta ondoren egin zan pakeaz.

2 1/ Ataratzera noa
 kanta bat berria
 nola akabatu dan
 moruen gerria;
 O'Donnell jaunarekin
 euren erregia,
 laureun milloegaitik
 konpondu ei dia.

2/ Martxoa ogetairuban
izen da atakia,
eta ogetabostian
firmatu da bakia;
suertatu ezpalitz
bakia egitia,
parregarri bier zan
emengo jentia.

3/ Gualdras'ko batalla
txito fuertia,
bertan izan eztanak
deuka suertia;
doble zeukan moruak
orduban jentia,
baña eragin jakon
laster bueltia.

- 4/ Gozeko zortziretan
ziran suan asi,
euskaldunak aurrera
naiz il ta naiz bizi;
gabeko zortziretan
kansatuta itxi,
etzan bitarte artan
il ta eridu gitxi.
- 5/ Etxaube zan aldetik ¹
autsi zuben sua,
estorbatzeagaitik
Tanjerko pasua;
fortifikaurik zeukan
moruak basua,
baña libratu zuen
ango enberazua.
- 6/ Abiatu zirenian
a la bayoneta,
orduante moruak ²
atzera buelta;
eztabe moruak zertan
erronkarik bota
datorren sigluetan
españolen kontra.

1. Etxague jenerala, lenbiziko soldadu-taldearekin, aurreko puntan zan eta ari eraso zioten lenengo moroak.

2. Bertso-paperak: *ordutxe moruak*.

7/ Euskaldun batallanak,
lauretatik iru,
gozeko lauretan ziran
Tetuan'en partidu³;
Tanjerreko bidetik
ziran dibididu,
eun ta piko egin dira
il eta eridu.

8/ Kataluña aldeko
boluntariuak
irureundik larogei
dira eriduak;
Madrid da Alcántara ta
Toledo aldekuak
bi millan pasa dira⁴
orain artekuak.

9/ Moruen perdidia
andia zan txito:
batzuek il da iridu,
beste batzuk ito.
Cazador, granadiru,
tanbor eta pito,
an bere faltako dira
makine bat kinto.

3. Bertso-paperak: *Tetuanen partira*.

4. Bertso-paperak: *bilmil lan pasadira*.

10/ Ikusi zuenian
ainbat il ta eridu,
orduban agindu dabe
laureun milloe diru;
artian etzuben nai
ainbeste agindu,
moruak konbeniua
orduban egin du.

11/ Laureun milloe dirubak
pagatu artian,
España'k agintzeko
Tetuan'go partian;
ganetik terrenua
ainbeste berian:
Sierra Bullones'tik
Angerrera artian ⁵.

5. Bertso-paperak olaxe dio: *Angerrera artian. Tangerrera artian* bear lukela ematen du. Bañan *Tanjer* ez; *Anghera* da emen aitatzen dana. Muley-elAbbas eta O'Donnell'ek 1860.III.25'an firmatu zuten pakean, onela esaten baita:

«Artículo 1.º: S. M. el Rey de Marruecos cede a S. M. la Reina de las Españas, a perpetuidad y en pleno dominio y soberanía, todo el territorio comprendido desde el mar, siguiendo las alturas de Sierra Bullones, hasta el barranco de Anghera.»

12/ Gañetik kolejiuak
misionistentzat,
ori bai nereoni
asko gustatzen zat,
arimak irebazteko
Jesukristorentzat;
ori, konbeniu ori
eman leike ontzat.

13/ Orra amairu bertso
oingo bakienak,
erosi papel bana
leitzen dakienak;
konbenioko berri
jakin nai dubenak,
txanpon bategaitikan
jakingo'itu danak.

ESPAÑOL DENEN ONRAN AFRIKA'KO GERRAGATIK ITZ NEURTUAK

Amabost bertso auek, or goiko izenburuarekin, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n dagoan bertso-paper batetik ditugu. Non argitaratua dan adierazteko, onela dio: «*Tolosan; la Lamaren alargunaren moldiztegian 1860 garren urtean*».

Egillea nor dan, ez da iñondik ageri.

Papera, damurik, puskatua dago zenbait tokitan eta itz batzuk falta dira. Utsune oiek puntuz idatzi ditugu.

Lenengo bost bertsoetan, emengo anaien arteko burrukak aitatzen dira. Oiek, gure ustez, onoko auek dira: *guerra realista* deritzana: 1822-1823; karlisten eta liberalen arteko lenengoa: 1833-1840; eta Alzaa jeneralaren ekiñaldia: 1848.

Amaikagarren bertsoak, ogei ta bat borroka egiñak dirala esaten da. Borrokak gerra batean nola kontatu bear diran, ez da oso gauza erreza asmatzen. Orrek ez digu, beraz, asko laguntzen, bertso auek noiztsu jarriak diran somatzeko.

Baiñan bertso berean, eta zortzi ta amabiga-

rreanean ere bai, moroak barkazio eske etorriak dirala esaten da. Leen ere esanik daukagunez, Tetuan galdu ondoren egin zuten moroak eskabide ori lenengoz. Baiñan baldintzetan batera etorri ez eta gerra berritu egin zan, Wad-Ras' eko burrukara arte.

Ori alde batetik; bestetik, berriz, gerra bukatutzat ematen da azken bi bertsoetan.

Orregatik, argibide oiek danak gogoan artuta, gerra bukatu berrian jarritako bertsoak izango dirala uste degu.

1/ Españi'ko leoia
denbora luzian
zanik ezagun etzan
naziyo tartian;
edozeñek burlatu,
ala ere pakian,
lanik asko zalako
anaion artian.

2/ Asko mesede zuten
beste erreinuak
gu onela izanaz
geren kaltekuak;
elkar ezin ikusi
anaietakuak
pagatu ditu gure
Españi gaixuak.

3/ I...sten giñanian
.....
burla egiten zuten
leku guztietan;
naiz jua legorrez ta
igual uretan,
guretzat laguntzarik
iñun ere etzan.

4/ Negargarrizkoa zan
gure suertia,
etzan posible ala
luze segitzia;
nai bazan españolak
aurreratutzia,
bear zan norirebait
gerra egitia.

5/ Kanpotarrak farrez ta
gu elkar galdutzen,
alare ez genduen
gaitza ezagutzen;
oraiñ asi gerade
zauriyak sendatzen,
noizbait ikasi bear
genduen bizitzen.

6/ Auzo onak dauzkagu,
Jaunari graziyak,
naiz ingelesa eta
frantzesaren biyak;
orijen antzekuak
gañeko guztiyak:
ezurak guretzako,
berentzat mamiyak.

7/ Esnatu da leoia,
biba Espainiya!
Biba erdaldun eta
euskaldun guztiya!
Autsak astindutzien
bazeukan premiya,
guri begira dago
Europa guztiya.

8/ Korajez beterikan
.....
me.....
jipoi ema.....
ederrak artu eta
ateriak dira,
barkaziyo eskeka
biziko badira.

9/ Etzuten asko uste
orrelakorikan
juango zitzaiotela
España'tikan;
laister degu etxian
ango gerratikan,
bandera bitoriyaz
jarririk Afrika'n.

10/ Pagu ori zeukaten
ongi mereziya,
ez burlatzia zuten
gure Españaia,
atakatubaz noiznai
Zeuta'ko erriya;
orraztu bat artzien
bazuten premiya.

11/ Ogei ta bat borroka
bat bestien urren
egin ditu leoiak
Afrika'n barrenen;
.....
españolaren men,
berak etorri dira
barkatzeko arren.

12/ Borrokan baliente,
ondoren noblia,
portatu da Afrika'n
español jendia;
umildubaz eskatu
ezkeroz pakia,
gauzarik aundiyena
da barkatutzia.

13/ Begira deiogun
.....
.....
.....
.....
.....
etzaio damutuko
orretzaz iñori.

14/ Nekatu dira zerbait
gure probintziyak,
bañan aztuko dira
denboraz guztiyak;
asko irabazi du
Ama España'k,
erakutsiz Afrika'n
seme gerrariyak.

15/ Baguaz, erdaldunak,
urrena artian,
gure etxietara,
deskantsa gaitian;
uste det digutela
utziko pakian,
ekusiyak ekusi,
aldiren batian.

BERTSO BERRIAK

«MARRUEKOTAN ZER PASATZEN DAN...»

Bertso auek, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'tik ditugu. «*Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguian*» argitara eman eta D'Abbadie'ren bilduman dagoan bertso-paper bat da.

Oi danez, *Bertso Berriak* beste izenbururik ez du; bigarrenko ori, lenengo bertsoetik artua da.

Egillearen izena azken bertsoak ematen du:

gezurrik esan ezpadiote
iñork Manuel Imaz'i.

Altzo'ko Imaz da ori; Manuel Antonio Imaz Garaialde (1811-1893). Orren bertso-bilduma argitara emana da *Auspoa*'ren 68-69-70'an.

Baiñan izena azken bertso orretan irakurri ez gendualako-edo, bertso-sail au falta da bilduma ortan. Garaiz oartu izan bagina, antxe sartuko genduan noski. Ala ere, onoko liburu au ere toki egokia da sail orrentzat eta gaitz erdi.

- 1/ Marruekotan zer pasatzen dan
bagatoz publikatzera,
konsueloak sartu nai ditut
personaren biotzera;
istoria au kantatuko det,
atozte enteratzera,
papera bana danak artuta
eramateko etxera.

- 2/ Jesu-Kristoren urteetatik
asi gaitezen aurrena,
aurtengo au da milla zortzireun
ta irurogeigarrena;
ogei eta bostgarrena berriz
zan Marzoko illarena,
egun andi au Marruekotan
pakeak egin zirena.

- 3/ Marruekotarrak moro zatarrak,
infiel da erejeak,
fede bageak, gaizki eziak,
bruto eta salbajeak;
trastornatutzen beti zebiltzen
jende eta parajeak,
orain eziko al ditu zerbait
españolen berajeak¹.

1. Guk, beintzat, ez dakigu *berajeak* itz orrek zer esan nai duan. Orain arte entzun gabea genduan. Azkue'ren iztegiak ere ez dakar. Bañan, bearbada, bertso-lariak *birajeak* edo *korajeak* idatziko zuan, eta inprentan gaizki irakurri eta *berajeak* jarri...

4/ Zeuta aldean burlatzen zuten
marruekoak española,
injuri asko egiten eta
sufritu ezin iñola;
bazirudien guregatikan
etzitzaiela ajola,
bisitatzera joan gera gu²
disponiturik odola.

5/ Militar eta komerziante,
danak zituen burlatzen,
españolaren onoreari
etzaio ala tokatzen;
etzutelako bear bezela
banderik errespetatzen,
berari gerra publikatu ta
orain dira sujetatzen.

6/ España'ko ejerzitoak
asi ziraden firmezan,
gaizkille orrek txarkeriarik
geiago egin etzezan;
pruebak egin bear zirala
sujetatutzen ote zan,
obeditu ta ipiñi dira
barkazio eske bajezan.

2. Papera puskatua dago eta au bakarrik irakur-
tzen da lerro onetan: *bisitatzera joan gu*. Gañontzekoa,
geok erantsia da, ala bear dualakoan.

7/ Marruekotar da moro jendeak
arro eta panparroiak
bentzutu ditu ejerzizio,
indarra ta arrazoiak;
marru aundiyak egiten ditu
Españia'ko leoiak,
merezi ere bazuten eta
artu ditue jipoiak.

8/ Gerrara bear estranjerira
itxasoz bide luzean,
ongi etorri txarra zegoan
an desenbarkatutzean;
ai, kukurruku garboz jotzen du
ollarrak nere etxean,
indarra bazan atzetik baño
lenengo joanak trantzean.

9/ Lenbizi joanak penatu ziran
indar eskas ziralako,
kontrarioa beti bazuen
aurrean amar alako;
puntuak artu eta eutsi
jende gogorra zalako,
alabatzea merezi dute
portatu diradelako.

10/ Gero indarra sartu zanean
etzan ainbeste kostatzen,
an erakutsi zaie ederki
moro zatarrak jostatzen;
trintxerak ausi, fuerteak kendu,
terrenoak konkistatzen,
orrelakorik pasako zanik
len etzuten sinistatzen.

11/ Marruekotarrak agertu dira
bost tropa arrigarrizko:
infanteria lurra betean,
ainbeste milla zaldizko;
ta erretira egin bearra
izanagatikan asko,
ikaratu ta jarriak dira
españolakin berrizko.

12/ Ogei batalla eta geiago
gogorrek dira izandu,
español onek dan guzietan
beti baza eraman du;
beñ artu duan terrenorikan
atzera eztio kendu,
ala ari danak.....³
biziरो ikaratzen du.

3. Paperari puska falta zaio emen eta ezin irakurri.

13/ Ziran Marzoan ogei ta iruan
batalla izugarriyak,
moroak zeuden enperadore
eta guzi etorriyak;
terzioakin soldadu zarrak
nastu ta kontra jarriyak,
azioak an egin dituzte
euskaldun buru gorriyak.

14/ Tiroka ezin bentzutu eta
a bayoneta sartuta,
karrasi onik egiten zuten
armaren puntan artuta;
erretiratzen` asi ziraden
iltzeak ikaratuta,
bosti bizia kendu zitzaion
atzetik arrapatuta.

15/ Euskaldun oiek... añek artzean⁴,
Prim orren dibisioak
artilleria eta zaldizko
egin ditu azioak;
ta oñezkoak *a bayoneta*,
—ai, orduko funtzioak!—,
moro guziak izutu ditu
ango destruizioak.

4. Emen papera puskatua ez, bañan zimurtuta dago;
eta, mikrofilmez bialdua baitegu, ezin irakurri.

16/ Lengo batallak danak galduak,
berriz ala ikusita,
alfer-alferrik ari zirala
jarri ziraden etsita;
esperantzarik etzedukaten
gogor egiten asita,
konbenioa eskatzen zuten
bandera erakutsita.

17/ Urrengo egun berean ziran
berriz urrena prestatu
español oek atakatzeko,
aiek pakea eskatu;
deseo zana emango zala,
au ezin gaizki juzgatu,
ango errege eta O'Donnell
artan ziraden juntatu.

18/ Jarriak dira pagatutzeko
ogei bat milloi duroak,
sakelak ustur bear dituzte
garai onetan moroak;
predikatzeko libertadean
dira misioneroak,
konbertitzeko intentzioan
ereje ta pikaroak.

19/ Terreno asko eman digute
Zeuta'ren inguruan,
errespetoa guarda dedin
len izan eztan moduan;
ezaguera sartuko balitz
salbaje aien buruan,
orraztu ori an emanaren
premia bazeagoan.

20/ Misionistak komeni dira
orain marruekotarrentzat,
ango terreno eta diruak
berriz espagnolarentzat;
konbenioa ala egiña
ederki dago beintzat,
biba O'Donnell eta erregiña,
artutzen ditugu ontzat.

21/ Libratu dira Marruekotan
izan diran euskaldunak,
an daude berriz agindu oiek
kobratu arte lagunak;
ala diote: «Ai, au gustoa
buelta egin degunak!
Len penatu ta orain dauzkagu
konsuelozko egunak!».

22/ Estranjerian modu askotan
daude istillu gorriak,
moroak baño geiago naski
penatu ditu zorriak;
gauza orrekin ikaratuta
asko daude etorriak,
onera ere duroak aña
badituzte ekarriak.

23/ Biba erregiña, orra batallak
Marruekotan irabazi,
Jaungoikoari eskerrak eta
jendeari milla grazi;
gezurrik esan ezpadiote
iñork Manuel Imaz'i,
orra egiaz gertatu dana
publiko adierazi.

TERZIYUEN ETORRERA

Zortzi bertso auek, «*Donostian: Ignacio Ramon Baroja-ren moldiztegui*an» argitara emandako paperetan zabaldu ziran. Paper oietako bat, gaur egunean Chicago'ko *New Library*'n dago, Bonaparte'ren bilduman.

J. J. Santesteban'ek ere argitara atera zituan bertso auek, batere aldaketarik gabe, bere *Colección de Aires Vascongados* izeneko kanta-bilduman.

Onak doña ere badu, ta kanturako ta pianorako gaiñera. Guk kanturakoa bakarrik aldatu degu onera.

Baiñan bi bertso artzen dituan doña luzea da. Olakorik ez da erri-doñuetan gertatzen. Orregatik, gure iritzirako beintzat, musikalariren bategen asmatutakoa izango da; Santesteban'ek berak-edo.

Baroja'renean argitaratutako paperean, izenburua erderaz dago: *Al regreso de los Tercios Vascongados / Zortzico*. Santesteban'en kanta-sortan, berriz, euskeraz: *Terziyuen etorrera*. Ura utzi ta onoko au artu degu onerako.

Iñork ere ez du esaten bertsoak norenak diran.

Bertso auen gaia zer dan, erderazko eta euskerazko izenburu oiek adierazi digute.

Anjel Gorostidi'k, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1907'an, *Tercios vascongados en Africa* izeneko idazlanean, onela esaten du:

«Resultado del combate de Wad-Rás fué la paz, de que ya hemos hecho mención; ¡los tercios vascongados regresaron a sus hogares! el 11 de Mayo de 1860 desembarcó el 2.º y el 13, la mitad del cuarto».

Araba'n izugarritzko ongi-etorri beroa egin zitzaien mutillai. Onela dio Jesus Izarra'k, 1925'an, *Euskal-erriaren alde* aldizkarian, *Contribución de sangre* izeneko idazlanean:

«Como la ida, hízose por Pasajes el regreso; á pie, por jornadas, y en compañía de varios entusiastas vitorianos. Por cierto que el tiempo frío y muy lluvioso, nada les favoreció.

Ya el 15 de Mayo del mismo año, triunfalmente hacía su entrada en Vitoria nuestro tercio. Al Portal del Rey, en donde se había levantado artístico arco, salieron á recibirle todas las autoridades, fuerzas vivas y vecindario en masa.

Inenarrable debió ser (según referencias por mí recogidas de testigos presenciales) el entusiasmo demostrado por los vitorianos hacia su querido tercio al paso de éste por las calles de San Francisco, Mentirón (en donde había otros tres arcos) y Constitución, hasta la Plaza de la Provincia.

Guereta, con su banda, nuevamente al servicio de los militares regresados, abría marcha ejecutando el pasacalle, entonces muy en boga, *Ay ay ay mutillak*.

En los lugares correspondientes, desplegadas y en alto, iban la bandera y banderines, custodiados hoy en nuestra Catedral, con algunos trofeos africanos.

Ya en la Diputación, el General Latorre pronunció patriótico discurso; contestóle Ayala en los mismos elevados tonos.

Hecha entrega del armamento, el pueblo cogió á los tercios por su cuenta, para agobiarles con sus obsequios.

Prueba de ello es el rótulo que en la peluquería á la sazón existente en el local que ocupa mi oficina, apareció. Decía así:

Con gran placer y alegría
y sin ningún interés,
se afeita y se corta el pelo
á todo tercio alavés.

y fué escrito, al parecer, por el laureado poeta Obdulio de Perea, parroquiano del establecimiento, y vecino de la misma calle, entonces Prado.

El Ayuntamiento dedicó cinco días á festejos, celebrándose en San Miguel, ante la Virgen Blanca, cultos solemnísimos, y en la plaza vieja de toros una corrida de vacas navarras, con la particularidad de que á modo de barrera, en el centro de la citada plaza se había colocado una gran tarima á la que las vacas no se acercaban, asustadas por el ruido que los ocupantes metían, con pies y palos».

Ta Bizkaia ta Gipuzkoa'n, 1860.V.15'eko
Irurac-Bat'ek dionez, arrera berdintsua egin zitzaien.

Irugarren *terzioa*, bizkaitarrena alegia, 1860.
V.13'an iritxi zan Portugalete'ra. *Tajo* bapo-

reak ekarri zuan. Egun berean, goizeko bederatzietan, legorreratu ziran mutillak.

Sekulako jendetza zuten zai. Milla koloretako oialak etxeetan, kanpaiak bueltaka, etxefuegoak, kañonazoak... Bizkai'ko diputaduak eta abar, zai. Portugalete'ko erriko etxeak kuartillo bana ardoz gonbidatu zituan mutillak, eta ofizialentzat *refreskoa* ta dantza.

Biaramonetan, 14'an, Bilbao aldera abiatu ziran. Bidea jendez beterik, koroiak, loreak, kanpaiak, etxefuegoak, musika, txaloak, oiua... Basurto'ra baiño leen, *arke* bat... Antxe, Latorre jeneralak eta Bizkai'ko zenbait agintarik itz batzuk mutillai eta jendeari.

Urrena, kalez kale ibili ziran: Arenal, Correo, Loteria, Bidebarrieta, Carnicería Vieja, Ribera, Barrenkale, Torre, Belostikale, Merkatu-plaza... Ta kale oietan, ogei *arke* baiño geiago...

Tolosa'ra, Maiatzaren 16'eko *Irurac-Bat'*ek dionez, illaren 12'an iritxi ziran: lenengo *terzioa*, arabarrena alegia, andik barrena igarotzeko; eta bigarrena, gipuzkoarrena, bertatik nor bere etxera joateko.

Arramele'ko zubian *arke* bat omen zan, erderazko itz auekin: *La villa de Tolosa a los vencedores de Africa*. Beste bat Napar-zubian, eta irugarrena Gaztela'ko atean.

Diputazioaren aurrean, alegia gaur eskolapio-

ak duten ikastetxearen aurrean, sei tantai luze, banderaz apainduta.

Santa Mari'ko elizan *Te Deum* bat kantatu zan. Andik Diputaziora; urrena Igarondo'ra ta an bazkaldu. Ta ondoren, esan bezela, bakoitza bere etxera.

Azpeiti'tik barrena, *Irurac-Bat* orrek 1860. V.24'an dionez, laugarren *terzioa* igaro zan; alegia, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak. Erriko sarre-ran *arke* bat jarria, euskeraz onela ziola:

Ongi etorriyak
izan zaitzte
euskaldun maite
gogoangarriyak.

Ta, oietaz gaiñera, Donostia'n-edo Afrika'tik zetozen mutil aiei ongi etorria egitearren kanta-tzeko, batenbatek bertso auk jarri:



The image shows a page of musical notation consisting of eight staves. The notation is written in a single system with a key signature of one flat (B-flat) and a common time signature (C). The notes are primarily eighth and sixteenth notes, often beamed together. There are several dynamic markings: *f* (forte) at the beginning of the second staff, *p* (piano) at the beginning of the third staff, *p* at the beginning of the fifth staff, *cresc.* (crescendo) above the seventh staff, and *f* at the beginning of the eighth staff. The notation also includes repeat signs (double bar lines with dots) and a *D.C.* (Da Capo) marking at the end of the eighth staff. The music is written on a single treble clef staff.

- 1/ Euskal-erriko jende
gazte eta zarrak,
eman zaizkagun gogoz
Jaunari eskerrak.
Etxera dira etorri
gure seme ederrak,
bukaturik osoro
Afrika'ko gerrak.
- 2/ Guraso ta anaiak
nola esplikatu
zer atsegintasuna
gaur dutena artu?
Ikusi arren ezin
degu sinistatu,
egun aundiagorik
ez zaigu argitu.
- 3/ Lau illabete ez dira
igaro oraindik,
gerrara joan zirala
ontziz Pasaia'tik.
Etxean daukazkigu
bueltan Afrika'tik,
guztियok gera arkitzen
kontentuz beterik.

4/ Erropak urratubak,
kolorea beltza,
lengo antzik batere
iñork ere ez dauka.
Afrika'ko ondarrak
die egin mudantza,
Gipuzkoa zuritzeko
toki txarra ez da.

5/ Tetuan'go ondartzan
ez da sagardorik,
jana bigaltzen zuten
español lurretik.
Ardoa ere izaten zan
merke ta ugari,
bañan asko erateko
ez oi zan dirurik.

6/ Mutill oietatikan
batzuek dira ill,
kolerak eta balak
die kalte egin.
Bizirik datozenak
ez dute izango min,
emen dira jarriko
sano eta berdin

7/ Bein bakarrik dute
sutan parte artu,
bañan biziro ongi
ziraden portatu.
Euskaldunikan ez du
moroak garaitu,
aurretikan aguro
zituzten bialdu.

8/ D. Karlos de Latorre,
guztion maitea,
gudari andia zera
birtutez betea.
Badakizu ederki
agintzen jendea,
guretzat ez diteke
arkitu ohea.

HIMNO Y ZORTZICO

CANTADOS EN LA SERENATA DEDICADA
AL EXCMO. SR. D. JUAN PRIM,
MARQUES DE LOS CASTILLEJOS,
CONDE DE REUS, etc., etc.
LA NOCHE DEL 14 DE AGOSTO DE 1861,
A SU PASO POR ESTA CIUDAD DE S. SEBASTIAN.

Bertso auk, lenengo bostak erderaz eta besteak euskeraz, Bonaparte'k osatu eta gaur Chicago'ko *New Library*'n dagoan bildumatik ditugu.

Bertso-paper bat da, eta moldiztegi-izena onela du: «*San Sebastian: Imprenta de Ignacio Ramon Baroja*».

Izenburua, or goien ezarri degun erderazko luze ori dauka paperak ere. Ta, besterik gabe, bear bezelako adierazpena ematen digu.

Juan Prim jenerala ere, Afrika'ko gerran ibilia zan. *Marqués de los Castillejos* izatea antxe irabazi zuan. Bera katalana izanik, katalanak zituan bere mendeko mutillak ere, eta sarrera gogorrek egin oi zituzten moroetan.

Ta, agidanean, gerra bukatu ta urrengo urtean, 1861.VIII.14'an, Donosti'tik barrena ego kitu zan Prim ori, eta donostiarrak ongi-etorri

sutsua egin zioten, erderaz eta euskeraz kantaturik.

CORO

Cuando Europa laureles levanta
por el fuerte guerrero español,
elevemos sus hechos de gloria
hasta el trono radiante del sol.

ESTROFAS

Desde el estrecho recinto
en que admiramos tu gloria,
consagramos a tu historia
un grito de admiración;

e inmenso es nuestro entusiasmo
aunque el recinto es estrecho,
que no hay anchura en el pecho
y es muy grande el corazón.

Ni Aníbal en el Tesino,
ni en Covadonga Pelayo,
ni Berenguer en Moncayo,
ni Bonaparte en Arcol,

pueden empañar los hechos
del fuerte guerrero hispano
que en el terreno africano
salvó el honor español.

ZORTZIKO

- 1/ Kontentuz beterikan
Donosti'ko erria
dago gaurko egunean
guztia jarria,
zarra eta gaztea,
sano ta eria,
Prim jaunari egiteko
ongi etorria.

- 2/ Utsikan egin bage
nola gentzake esan
zenbat balio duen
D. Juan Prim'ek gerran?
Eskribituak daude
moldezko letretan
orren azaña aundiak
Afrika'ko lurretan.

- 3/ Tetuan'go inguruak
balekite izketan ¹,
esango luteke ongi
Prim nolakoa dan.
Katalan mutillakin
aurretik joaten zan,
moroak garaitzeko
parerik etzeukan.

1. Bertso-paperak: *Baliteke izketan.*

4/ Naiz zaldizkoa kontra,
naiz oñezkoa izan,
Prim'entzat bildurrikan
beñ ere izan ez zan.
Bateri ta trintxerak
ez ziraden basta,
armarazi ezkeru
Prim'ek baioneta.

5/ Ez degu esan bear
batere geiago,
gañerako guztia
istorian dago.
Gizon famatu ontzat
orain ta lenago
España guztia
arriturik dago.


6/ Ongi etorri bada,
gerrari aundia,
guretzat gaurko eguna
da txit pozgarria.
Deseatzen dizugu
luzaro bizia,
españolai emateko
len ainbat gloria.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.

34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*)
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. A. *Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. A. *Zavala*: Zapirain anaiak.
126. A. *Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. A. *Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. A. *Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA